



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko ekainaren 4an

50 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Haragitarako behiaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzakeen eraginei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Lurzati berrantolamenduaren prozesuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Ustiategi oinarritzko azalerei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Ustiategi oinarritzko azalera eratzeko laguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Lurzati berrantolamendurako laguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoa arautzeko neurri bereziak indarrean egoteak gure komunitatean duen eraginari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Errioxan, Logroño-Agoncillo aireportua eraikitzeak Nafarroan izanen duen eraginari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Castejonen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Arga ibaian eta Egues errekan berriz ere izandako kutsadurari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Negutegi-efektua eragiten duten gas igorpenak gutxitzeko Parlamentu honek Nafarroako Gobernuari eskatutako jarduketa proiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Bidasoa ibaiaren ingurunean lurzoruen kutsadura kontrolatu eta jarraitzeko jarduketaren emaitzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

- Abeltzaintza ustiatuegien ingurugiro eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Lurzoruak deskontaminatzeko egindako jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Irati eta Aragon ibaietako landarediaren azterlanari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Bertizko Jaurerriko ugaztunen inbentarioa eta kudeaketarako irizpideei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Nafarroako basoilo handien populazioaren bideragarritasun azterlanari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Urantziako Udaleko dermioan Odron ibaiaren ibilgua handitzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- San Adriandik igarotzean Ega ibaiko ureztatze-ubide baten kutsadurari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Ega ibaian, San Adrian herrian, hain zuzen, arrain hiltzea eragin zuen kutsaguneari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Nafarroan, 1998 urtean zehar, arrainen heriotza eragin duten kutsaguneei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Abeltzaintza ustiatuegien ingurugiro eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Hondatutako eremuak leheneratu eta ingurugiro eraginak zuzentzeko buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Esnearen eta esnekien Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzakeen eraginei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Nafarroako Artxibo Nagusiko dokumentazio historikoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Desagertu berria den LH1etik heldu diren ikasleentzako aurreikusi diren alternatibei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Buñuelgo “Santa Ana” ikastetxe publikoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- Bosques Naturales, SA enpresarekin izenpetutako hitzarmenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- Beran, Ibardin eta Zia erreketan arrainak hiltzeko buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Robo eta Arga ibaietan, Gares aldean, izan den arrain hiltzeko buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
- Ega ibaian, Andosillan, izan den kutsadurari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).
- Nafarroako Gobernuak eta Bosques Naturales enpresak sinatutako lankidetzak akordioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (45. or.).
- Eugiko urtegia hustu eta gero antzeman den arrainen heriotzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (46. or.).
- 1998ko abuztuaren 23an, Arga ibaian arrain hilak agertzeko buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (48 or.).

F saila:
GALDERAK

Haragitarako behiaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzakeen eraginei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak haragitarako behiaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzakeen eraginei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du haragitarako behiaren merkatuaren antolamendu amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzakeen eraginei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da arlo honi buruzko Erregelamendu Proiektua, 1998ko martxoaren 18an argitaratutakoa, hainbat asmo azaltzen dituen behin-behineko dokumentu bat dela, baina horiek ondoren garatu eta aplikatzeari buruzko zehaztapenik ez duela.

Jarraian, galderak erantzunen ditut egin diren hurrenkera berean:

1.- Behiaren prezioen jokaera etorkizunera begira zaila da aurreikusten, hainbat aldagaien eraginpean baitago (kontsumoaren joerak, merkatuak irekitzea, krisi epidemiologikoak eta abar). Aldatzekotan, 2000 Agendan aurreikusitako % 30eko mailakako jaitsiera gogoan edukiz, urteko batezbesteko 464 eta 327 PTA/Kg artean ibil litezke.

Eskuhartze-preziora apurka-apurka urteko % 10 jaitsi deneko hiru urteko epearen ondoren,

nahiz eta Batzordearen iritziz prezioak gaur egun ezarritako laguntzen gehikuntzarekin konpentsatuko lirakekeen, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan eginiko hainbat azterlanen arabera Nafarroako haragitarako behiaren sektorearentzako galerak nabarmenak izanen lirakeke 2000/2006 eperako, proposaturiko erreforma aplikatuko balitz.

2.- Foru Komunitateko Administrazioarentzat, eskuhartze publikotik aldi baterako biltegitratze pribatura pasatzeak ez du kostu ekonomikorik ekartzten, bi kasu horietan FEOGAK finantzatzen dituelako jarduketak.

Ekoi-zeleentzat egoera ezberdina da, eskuhartzearen mekanismoekin FEOGAK produktua erosten duelako ezarritako gutxieneko prezioan eta biltegitratzeaz eta salmentaz arduratzen delako. Biltegitratze pribatuaren bitartez, ordea, ekoi-zeleak laguntza jasotzen du biltegitratze horren ondorioz, baina produktuaren jabe izaten jarraitzen du; produktu horrek balioa galtzen du izoztean, eta biltegiaren egoteko gehieneko eta gutxieneko epe batzuk ezartzen zaizkio. Irteera esportaziorako izan dadila behartzen da.

3.- Aurreikusitako urteetan prezioen jaitsiera % 30ekoa izanen dela kontsideratuz, zuzeneko laguntzek ez lukete beteko haragiaren balio-galerak utzitako hutsunea. Gainera, gogoan izan behar da behiaren sektoreko OCMan aurreikusten den konpentsazioaren zati bat esne-ustiategietara desbideratuko litzatekeela.

4.- Behi-aziendako ale ar baten bizian zehar bi prima ordaintzean datzan bi erditan ordaintzeak ez du praktikan eragin ekonomikorik, ia ez dagoe-lako haragitarako animaliarik 22 hilabete baino gehiagoko adinekorik.

Behi ume-hazleak, txekorrek eta esnetarako behiak talde ezberdintzat hartuz, Erregelamendu Proiektuak aurreikusten du oinarritzko prima bat

ordaintzea, Estatu kide guztietan bera izanen dena; horrez gain, prima gehigarri bat ordaintzea, horren finantza-zenbatekoa Estatu kideek banatu beharrekoa izanik. Abere bakoitzeko laguntza-muga ezartzen da, bi primen baturaren adinakoa.

Arestian aipaturiko hiru produkzio-taldeen artean finantza-zenbatekoak (prima gehigarria) modu berdinzalean banatzen baldin badira, ondorioztatzen da horiek hiru talde horietara aldi berean aplikatuz ez dela laguntza handienera iristen.

5.- Gaur arte ez da kontakturik egon arlo horretan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 5ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Lurzati berrantolamenduaren prozesuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak lurzati berrantolamenduaren prozesuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko gal-

dera egin du lurzati berrantolamenduari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Honekin batera bidaltzen dizut 1998ko ekainaren 30ean eskatutako informazioa.

Hori guztia jakinarazi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 1998ko urriaren 5ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

(Oharra: Aipatu informazio Foru Parlamentarioaren esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Ustategien oinarrizko azalerei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak ustategien oinarrizko azalerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du ustategien oinarrizko azalerei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Ustategien oinarrizko azalera ezartzeko irizpideak, horiek arautzeko araudia eta emaitzak ez dira aldatu, aipatu Parlamentarioari, gai honen

inguruan, erantzuna eman zitzaionetik, 1997ko otsailaren 21etik, hain zuzen.

Ondoren, egun horretatik aurrera Lurzatién Berrantolamenduari buruzko Dekretua onetsia duten eremuei buruzko datuak eskainiko dira, baina ustiategien oinarrizko azalaren mugeei dagozkienak bakarrik. Izan ere, eremuen datu orokorrak lurzatién berrantolamenduari buruzko galderaren -Foru Parlamentario berak egindakoa- erantzunean agertzen baitira.

Herria	UOAen mugak sekain lurretan		UOA mugak ureztalurretan		Bihurtzeko indizea	
	Gehienekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa	Gutxienekoa	Gehienekoa	Gutxienekoa
Torres del Río	82	36	23	3,5	3,57	10,29
Santsol	82	36	23	3,5	3,57	10,29

Zarrakaztelu	123	50	26	4	4,73	12,50
Corella	150	60	26	4	5,77	15
Viana	82	36	23	3,5	3,57	10,29
Belaskoain	50	25	23	3,5	2,17	7,14
Funes	132	53	26	4	5,08	13,25
Lodosa	132	53	26	4	5,08	13,25
Madotz	23	8	14	3,5	1,64	2,29
Tutera	150	60	26	4	5,77	15
Gartzaron	23	8	14	3,5	1,64	2,29

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 1998ko urriaren 5ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

Ustiategien oinarrizko azalera eratzeko laguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak ustiategien oinarrizko azalera eratzeko laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du ustiategien oinarrizko azalera eratzeko laguntzei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1. Honekin batera doaz ustiategien oinarrizko azalera arautzen dituzten dekretuak eta foru aginduak.

2. Ez da aldaketarik izan.

3. 1988ko ekitaldian erabilgarri den diru kopurua, guztira, 40.000.000 pezetakoa da.

4. Honekin batera doaz ustiategien oinarrizko azalera eratzeko eskatu diren laguntzei buruzko espedienteen zerrenda eta espediente horien egoera.

5. Bat ere ez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 5ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria, Ignacio Javier Martínez Alfaro

(Oharra: Aipatu xedapenak Foru Parlamentarioen esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Lurzati berrantolamendurako laguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak lurzati berrantolamendurako laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du lurzati berrantolamendu bidezko birbanaketarentzako laguntzei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1. Otsailaren 19ko 124/1996 Foru Dekretua, Lurzati Kontzentrazioa egiteagatik euren laboran-

tza iraunkorretan ukituak izan diren ustiategienezako laguntzen ematea arautzen duena.

2. Aurrekontuko kontusailak ez du aldaketarik izan.

3. Kontusailaren 1998ko aurrekontua 8 milioi pezetakoa da. 1997an ez zen krediturik konprometitu.

4. 1997an, 41 laguni eman zitzaion laguntza Azagran, 72,7 ha-tan mahatsa landatzeagatik, guztira 14.698.450 pezeta.

Ekitaldi honetan 66 eskaera ari dira tramitatu, 86,65 mahats ha-ri buruzkoak.

5. Ez dago gastu konpromisurik 1999rako.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 5ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21ko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas

Foru Parlamentario jaunak galdera egin du, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Zaraitzu ibarrean egindako jarduketei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak dirulaguntzak ematen dizkie nekazaritza ustiategiari, Zaraitzu ibarrean —eskualde andeatua baita—, indarrean dauden xedapenei jarraiki. Oraingo ez dago aldatzeko asmorik; izan ere, Landa-garapenari buruzko Erregelamenduaren zirriborroa aztertzen eta tramitatzen ari da. 2000. urtetik aitzina aplikatu nahi da erregelamendu hori; eskualde andeatua zer den definitzen du eta dirulaguntzak jasotzeko aukerak nahiz baldintzak zehazten.

Hona Zaraitzu ibarrean laborantza-sektoreari emandako dirulaguntzen zerrenda.

1997. urtea.- FEOGA-bermearen dirulaguntzak (NPK)

Udalerria	Azalera		Ardiak eta ahuntzak		Behirak (hazamak)		Txahalak		Guztira
	Ha	Zenbatekoa	Buruak	Zenbatekoa	Buruak	Zenbatekoa	Buruak	Zenbatekoa	
Espartza-Zaraitzu	11	208.035	31	112.085	0	0	0	0	320.120
Ezkaroze	213	4.215.190	2870	10.367.134	169	6.155886	62	1359277	22.097.481
Galoze	110	2.182.427	1787	6.454.424	268	9.804.307	74	1.604.579	20.045.737
Gorza	0	0	18	64.485	0	0	0	0	64.485
Itzaltzu	2	44.537	833	3.009.644	0	0	0	0	3.054.181
Jaurrieta	120	2.379.455	5.235	18.910.546	457	16.700.436	120	2.612.232	40.602.669
Otsagabia	112	2.223.447	14.073	50.830.297	149	5.424.159	62	1.346.174	59.824.077
Orontze	4	85.510	440	1.589.498	0	0	0	0	1.675.008
Sartze	32	641.721	667	2.408.400	0	0	0	0	3.050.121
Guztira	604	11980.322	25.954	93.746513	1.043	38.084.782	318	6.922.262	150.733.879

1997. urtea.- FEOGA-bermearen dirulaguntzak (laguntza neurriak)

Udalerria	Jubilatzea/uztea	ICM	Baso-sartzea	Pentsio-planak	Guztira
Espartza	0	0	0	0	0
Ezkaroze	976.836	1.704.233	0	691.588	3.372.657
Galoze	0	955.508	0	511.186	1.466.694
Gorza	0	0	0	0	0
Itzaltzu	0	215.690	0	189.626	405.316
Jaurrieta	2.689.260	2.226.593	0	796.780	5.712.633
Otsagabia	3.151.674	4.485.298	2.764.586	2202090	12.603.648
Orontze	0	0	1.087.486	0	1.087.486
Sartze	0	443.526	0	196.469	639.995
Guztira	6.817.770	10.030.848	3.852.072	4.587.739	25.288.429

297/92 Dekretuari jarraiki sortutako espedienteak, 1997. urtean ebatzitakoak

Hobetze planak

Udalerrria	Esped. zbk	Inbertsioa	Mailegua	Zuzen. dirul.	Zehar. dirul.	Dirul., guztira
Ezkaroze	2	7.664.705	4.913.149	2.138.945	1.155.663	3.294.608
Jaurrieta	1	942.998	0	424.039	0	424.039
Otsagabia	4	12.412.493	9.309.370	3.589.123	1.650.342	5.239.465
	7	21.020.196	14.222.519	6.152.107	2.806.005	8.958.112

Kontabilitatea

Otsagabia	2	0	0	486.000	0	486.000
Guztira	2	0	0	486.000	0	486.000

297/92 Dekretuari jarraiki sortutako espedienteak, 1998. urtean ebatzitakoak

Hobetze planak

Ezkaroze	3	23.368.411	17.526.307	5.842.104	3.320.927	9.063.031
Galoze	1	4.207.313	3.155.485	1.051.828	432.124	1.483.952
Itzaltzu	1	4.924.860	3.693.645	1.231.215	661.492	1.842.707
Jaurrieta	3	18.260.766	11.835.000	5.061.313	2.753.097	7.814.410
Otsagabia	2	28.824.995	21.618.745	7.206.250	2.372.781	9.759.031
Guztira	10	79.586.345	57.829.182	20.392.710	9.440.421	29.833.131

Badira ebazteke daudenak: lehen instalazioaren espediente bat Jaurrietan, 4 hobetze plan Jaurrietan eta 4 Otsagabian.

2gn. - Zaraitzu ibarreko Batzarreak ez du eskatu Abodi mendian larreak hobetzeko jarduketarik. 1985. urtetik aitzina, ibarreko Batzarreak gai horren inguruko eskaera egin du, baita 62.230.078 pezetako inbertsioa lortu ere, sei espedientetan, urte hauetan: 1985, 1986, 1987, 1990, 1993 eta 1996.

3gn. - Prestakuntza Atalak etengabeko prestakuntza eta laguntza teknikoa eskaintzen du. Helburuetako bat nekazari eta abeltzainak -bereziki, gazteak- bultzatzea da, nekazaritza ustategiez gain, beste alternatiba batzuk eta dirusarrera osagarriak izan ditzaten. Orobat, Erremendiako finkako zentroan esperientziak egiten dira, izan litezkeen alternatiben lagungarri.

1997 eta 1998 urteetan, etengabeko prestakuntza eta laguntza teknikoa eman zaie, Zaraitzu ibarrean, zenbait abeltzaini:

25 behi-abeltzain, 838 abelburu dituztenak

42 ardi-abeltzain, 15.590 abelburu dituztenak

Zaldi-abeltzain bat, 12 abelburu dituena

Zerri-abeltzain bat, 104 abelburu dituena

Eskualdeko nekazarien eskariei erantzuteko, ondoko esperientziak egin dira 1997 eta 1998 urteetan Erremendiako finkan:

* Erreferentziako finka bat, haragitarako ardiena.

* Ardien erditzeak, belar asko sortzen den garaietan.

* Neguan, azienda kanpoan edukitzea.

* Gorotza konpost bihurtzeko teknikak.

* Ardien intseminazio artifiziala, hazi izoztua erabiliz.

* Abeltzainen prestakuntza.

* Sendabelarrak produzitu eta egitea.

* Erreferentziako ustategi bat, Auritz arrazako zaldiena.

I.T.G.Ganadero-k, Zaraitzuko Batzarreak eskaturik, saldoek Abodiko larreetan sartzeko bete beharreko osasun baldintzak aipatu ditu. 97 eta 98 urteetan, Zaraitzun bizi diren 18 ikaslek hartu dute parte I.T.G.Agricola-k honako gai hauek azaltzeko eskainitako ikastaroetan: gaztagintza, esne behien hazkuntza, landare-babesa eta erle-

babesa, abeltzaintza ekologikoa, abeltzaintza estentsiboa eta ingurunea, artzain zakurren hezkuntza, nekazaritzako jarduera turistikoak eta artisa-jarduerak, Pirinioetako behien hobekuntza genetikoak, natur-gidak, marmeladak, likoreak eta hestebeteak.

Artisa-jardueretan inbertsioak egiteko laguntza eskakizunik ez da jaso, 1997 eta 1998 urteetan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 5ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoa arautzeko neurri bereziak indarrean egoteak gure komunitatean duen eraginari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoa arautzeko neurri bereziak indarrean egoteak gure komunitatean duen eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoa arautzeko neurri bereziak indarrean egoteak gure komunitatean duen eraginari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1.- Ezarri al du Nafarroako Gobernuak kontrol neurriren bat arau horrek gure komunitatean dituen eraginak ezagutu eta baloratzeko? Baiezkoan, zer nolako neurriak? Noiztik ezarri dira?

Nafarroako Gobernuak lehenik eta behin ezarritako kontrol neurriak hurrengoak dira:

- Ibilgailu pisuen zirkulazioa zenbatekoa den aztertzea.

- Foruzaingoaren zaintze eta kontrol neurriak, Trafikoko Guardia Zibilarekin elkarlanean.

Neurri horiek, nolabait ere, ezarrita zeuden, eta, aipatutako araudia indarren sartzera, indartu egin ziren.

2.- Ba al du Nafarroako Gobernuak daturik zer trafiko kopuru zegoen, Nafarroan, Euskal Autonomia Elkarteko debekua indarrean sartu aurretik? Baiezkoan, ondoko datuak eskatzen dira: Iruñea-Frantzia eta Iruñea-Gasteiz autobietakoak eta baita gure komunitatea eta Frantziaren arteko pasabideetakoak.

Hona, hurrengo taulan, ibilgailu pisuen batezbesteko zirkulazio kopurua igandetan.

	1996	1997	1998
Areso A-15	666	404	418
Belate N-121 A	401	484	761
Bera N-121 A	280	326	435

3.- Izan al du Nafarroako Gobernuak bilerarik gure komunitateko garraiolari elkarteekin, hitz egin eta aztertzeko aipatutako neurriak gure komunitatean izan duten eragina? Zein da elkarte horien iritzia eta zer eskaera dituzte?

Foru Komunitateko elkarte nagusiekin bilerak egin dira: TRADISNA eta ANETekin, bereziki. Elkarte biek eskatzen dute asteko egun guztietan izan dadila zirkulatzeko askatasuna, eta baita urteko egun guztietan ere; Euskal Autonomi Erkidegoko neurria oso murriztailea dela uste dute.

4.- Aurreko galderetan aipatutakoez gain, zer jarduketa egiten hasi da Nafarroako Gobernu egoera horri aurre egiteko?

Nafarroako Gobernuak merkantzia garraioarekin zerikusia duten eztabaida-leku guztietan eskatu du Europako Komunitateko kide diren estatuetan arlo horretan hartzen diren neurriak homogeneoak eta koordinatuak izan daitezen; eta, hori lortu ezin den bitartean, Nafarroako Gobernuak Euskal Autonomi Erkidegoko neurriak kentzea edo, gutxienez, malgutzea eskatu du.

Horretarako, zenbait gestio egin dira Sustapen Ministerioarekin, Barne Ministerioarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Europako Parlamentuarekin, eta, horietaz gain, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatearen jarrera defendatu du garraio zuzendari nagusiek eginiko hainbat bileratan, hala nola Zafran (1997ko otsailean), Teruelen (1997ko maiatzean), Iruñean (1998ko urtarrilean) eta Salamancan (1998ko apirilean).

5.- Aurreikusitako al du Nafarroako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoko Bidezaingo eta Ibilgailuen zuzendariak ezarritakoaren antzeko neurriren bat ezartzea?

Nafarroako Foru Komunitateak baditu trafiko arloan zenbait eskumen, baina, horien artean, ez dago horrelako neurriak hartzeko ahalmena ematen duenik.

6.- Eskatua al du Nafarroako Gobernuak bilera edo kontakturen bat Sustapen Ministerioarekin edo Barne Ministerioarekin, egoera aztertzeko edo aipatu ditugun arazoak konpontzeko?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak zenbait bilera egin ditu, eta, aritu da besteak beste, gai horri buruz.

7.- Zer emaitza praktiko izan ditu 1997ko maiatzaren 6an, Lakuan izandako bilerak, hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuko Barne zuzendaria, eta Garraio eta Telekomunikazio zuzendaria eta Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Bidezaingo eta Ibilgailuen zuzendariaren artean, non hitzartu zen informazioa trukatzeko eta arazoak erkidego bakoitzean zuen eboluzioaren jarraipena batera egitea?

Arautegia eta horren aldaketak argitaratuak izan aurretik ezagutzea izan da, nagusiki, emaitza praktikoa.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak eginiko eskari batzuk -gutxienez, hein batean- kontuan hartu dira. Horrela, 1997ko otsaileko ebazpena aldatzea lortu zen; alegia, murrizketa ibilgailu pisu guztientzat izatea lortu zen, jatorria edo norakoa kontuan hartu gabe, diskriminatzailea izan baitzitekeen beste erkidego batzuetako garraiolarientzat.

Orobat, Herrilan Garraio eta Komunikazio Departamentu honek hala eskaturik, 1998ko urtean zehar Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoa arautzeko neurriak onesten dituen ebazpenean, ordutegiak Frantzian ezarritakoekin koordinatu dira eta debeku egunak murriztu: igandeetan eta Euskal Autonomia Erkidego osoan jaiegun direntan soilik egonen da debekatua zirkulatzea, eta, erkidego horretako probintzia bakar batean jai den egunetan, ez da zirkulatzeko debekurik izanen.

Frantzian edo Espainian egun jakin bat jai ez den kasuetarako ere –hau da, batean jai eta bestean jai ez denetarako– zenbait neurri hartu ziren, hala nola Euskadiko errepideetan zirkulatzeko uztea ordu jakin batzuen barrenean; horrela, erkidego mugakideetara heltzea ahalbidetu zen.

8.- Zein jarduketak koordinatu egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta Nafarroako Foru Administrazioaren artean, aurreko galderan aipatutako bileraren ondorioz?

Koordinatutako jarduketak trafiko arloko ohikoak besterik ez dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 30ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21ko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak galdera egin du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Zaraitzu ibarrean egindako jarduketei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Aipatu diren lanak egiteko (Gorza eta Zaraitzu-Espartza arteko errepide zatia hobetu, baita Jaurrietako zeharbidea ere, Auritz-Itzaltzu eta Espartza-Ezkaroze errepideak egokitu, eta zenbait zaintze jarduketa egin) zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak? Zer aurrekonturekin? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

Ondokoak dira bide Zerbitzuak Zaraitzu ibarrean egin edo planifikatutako jarduketak:

1.- Gorza-Espartza obra, bidea egokitu eta hobetzea alegia, egiten ari da. Zeharkako sekzioari esker (7/9) 3, 5 metroko bi karril eta metro bateko bazterbideak izanen dira.

Obraren hasiera: 1997-12-20

Obraren amaiera: 1999-04-24

Adjudikazio aurrekontua: 307.455.963 pezeta.

2.- Espartza-Otsagabia (Espartza-Ezkaroze barne). Nafarroako Errepideei buruzko Plan Zuzentzailean bildutakoari jarraiki, 250 milioiko inbertsioa eginen da 1999an errepidea egokitu eta hobetzekin.

3.- Auritz-Izaba (Auritz-Itzaltzu barne). Nafarroako Errepideei buruzko Plan Zuzentzailean bil-

dutakoari jarraiki, bide-zati horretan aurreikusitako inbertsioa 2.200 milioikoa da (ez dira jarduketak zehazten), modu honetan banatuta:

1999	100 milioi pezeta
2000	600 milioi pezeta
2001	200 milioi pezeta
2004	500 milioi pezeta
2005	800 milioi pezeta

Jaurrietako zeharbidea.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez du aurreikusi inbertsiorik obra (100 bat milioikoa) finantzatzeko. Toki Administrazioak, aldiz, 10.420.000 pezetako inbertsioa aurreikusi du Mayor eta Blanca kaleetako sareak berritzearren.

Halere, 1997an Osateko sakanaren bideratze lanak, presakotzat jo eta zeharbidearen proiektuak baitira, egin dira. Obra 22 milioi pezetatan kitatu da.

Kontserbazioa.- Kontserbazio lanak halakoe-tan egin ohi direnak izan dira: bide bazterrak garbitu, zuloak estali, margotu, seinalezlatu, balizatu etab.

Ondokoak dira agoizko barruti osorako kontratatu dira kontserbazio lanak. Kontrata bidezko kontserbazio lanen zenbatekoak:

1997	184.000.000 pezeta
1998	200.000.000 pezeta

2.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak Zaraitzu ibarrean telebisio kate pribatuak ongi ikustea ahalbidetzeko? Izan al da emaitza zehatzik? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

Telebisio-sarea birmoldatu eta telebisio kate pribatuak Nafarroan hedatzeko planarekin bat etorritik, telebisio kate pribatuak ikusi ahal izateko beharrezko ekipamenduak instalatu ziren 1997an, Zaraitzu ibarreko telekomunikazio zentroetan zein telebanaketa sistemetan:

TB igorleak:

	Antena 3	Tele 5
Arabarko	1997-06-20	1997-06-20
Espartza-Zaraitzu	1997-11-25	1997-11-25
Muskilda	1997-06-20	1997-06-20

Telebanaketa:		
Itzalle	1994	1994
Otsagabia	1998-07-21	1998-07-21
Jaurrieta	1998-06-20	1998-06-20
Ezkaroze	1998-06-20	1998-06-20

Egindako jarduketei esker, telebisiu pribatueta-ko programak ikusten ahal dira Zaraitzu ibarreko herri guztietan, Sartzeko xehez Kontzejuan izan ezik, erakunde erregulatuak ezarritako seinale-kalitatea baino hobea goarekin ikusi ere. Telebisiu pribatueta-ko seinale-maila eta telebisiu publiko-eta-koa beretsua da.

Sartzeko Kontzejurako telebanaketa sistema bat egiteko asmoa du Gobernuak, Zaraitzu ibarreko herri guztietarako hedadura lortzearren.

3.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak, Zaraitzu ibarrean telefono mugikorra erabili ahal izateko beharrezkoa den hedapena izateko? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

Gobernuak hitzarmenak sinatu ditu 1997 eta 1998an Telefónica eta Airtel konpainia operatzaileekin, Zaraitzu ibarreko ondoko telekomunikazio zentroetan telefonia mugigarria paratzeko azpiegiturak erabil ditzaten ahalbidetzearren:

Leire: Telefónica (Movi-Line eta Movi-Star), zerbitzuan
Airtel, zerbitzuan

Arabarko: Telefónica (Movi-Line eta Movi-Star), laster batean zerbitzuan

Muskilda: Airtel, zerbitzuan
Telefónica (Movi-Line eta Movi-Star), laster batean zerbitzuan

Nafarroako Gobernuak ez du dirurik jarri zerbitzu hori abiarazteko.

Nafarroako Gobernuak helarazi egiten die telefonia mugigarriko konpainia operatzaileei zenbait herri egindako eskaerak, eta horrez gain, bere komunikazio zentroetako azpiegiturak erabiltzeko beharrezkoak diren akordioak ahalbidetzen ditu, konpainia operatzaileak hala eskatzen baldin badu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 5ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Kontseilaria, José Ignacio Palacios Zuasti

Errioxan, Logroño-Agoncillo aireportua eraikitzeak Nafarroan izan den eraginari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Errioxan, Logroño-Agoncillo aireportua eraikitzeak Nafarroan izan den eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21ko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas, Foru Parlamentario jaunak galdera egin du, Errioxan, Logroño-Agoncillo aireportua eraikitzeak Nafarroan izan den eraginari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Ari al da jarraitzen Nafarroako Gobernuak Logroño-Agoncillo aireportua egiteko eraikitze-proiektuaren izapideak? Zein fasetan dago gaur egun? Noizko aurreikusi da jarriko dela martxan?

Nafarroako Gobernuak ezagutzen ditu gai honetan ematen diren urratsak, hau izenpentzen

duen Kontseilariak ematen baitio horien berri. Errioxako Gobernuko Herrilan, Garraio, Hirigintza eta Etxebizitza Kontseilari andreak esan digu dena prest dagoela une honetan eta, aireportua eraikitzeko, Sustapen Ministerioarekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea falta dela. Eta Ministerio horrek laster sinatuko omen du.

Orobat, esan digu obrak 1999ko lehen hirulekoan hastekoak direla eta hura burutzeko epea 16 hilabetekoa dela. Beraz, obrak bukatu ostean hasiko da martxan, beharrezko diren kudeaketak egin ondoren.

2.- Errioxarekin muga egiten duten herrientzat, aireportu hori eraikitzea onuragarria dela uste du Nafarroako Gobernuak? Izan al du kontakturik edo egin al du bilerarik Errioxako Gobernuarekin gai horri buruz aritzeko? Zein egunetan? Zein ondorio atera ziren?

Bai.

Bi Gobernuetako departamentuen arteko komunikazioa egokia da. Bi Kontseilariak, Errioxako Kontseilari andrea eta biok, zenbaitetan bildu gara, eta, gainera, harremanak ditugu telefono, fax eta abarren bidez; halakoetan, jakina, besteak beste, gai honi buruz jardun dugu.

3.- Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat hastea Errioxako Gobernuarekin, Mendabia eta aipatutako komunitate hori lotuko dituen zubia eraikitzeko? Nafarroako Gobernuak uste al du komenigarria dela zubi hori eraikitzea Logroño-Agoncillo aireportua martxan hastearekin batera?

Lehen aipatu bileretan hitz egin dugu gai honi buruz. Zernahi dela, kudeaketak, Errioxako Gobernuarekin bakarrik ez, Sustapen Ministerioarekin ere -Errioxako Errepideen Mugapea- egin behar dira. Izan ere, Errioxako Autonomia Erkidegoak ez du jaso erkidegotik igarotzen diren errepi-de nazionalen titulartasuna.

4.- Izan al du bileraren bat Nafarroako Gobernuak Errioxatik gertu dauden herriekin, aipatutako aireportuaz eta esan den zubi horretaz jarduteko?

Ez da bilera formalik izan, nahiz eta hau izenpetzen duen Kontseilariak gai horretaz jardun duen Nafarroako eskualde horretako ordezkari batzuekin.

Iruñean, 1998ko urriaren 5ean.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21ko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Zaraitzu ibarrean egindako jarduketei buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak Izizko poligonoaren urbanizatzea dela-eta? Noiz hasi ziren? Zer aurrekonturekin? Noizko amaitu ziren edo aurreikusi da amaitzea?

Zaraitzu ibarreko Batzarreak sustatu zuen, hasiera batean, Izizko poligonoa; horretarako, lurretako batzuk erosi eta proiektu sektorial eta hirigintzako bat idazteko agindua eman zuen.

1993an, ibarreko Batzarreak eskaturik, Nafarroako Gobernuak poligonoaren ardura hartu eta lanekin jarraitu zuen: proiektuak landu, hirigintza tramitazioa, beharrezkoak diren lur guztiak erosi eta, azkenean, urbanizatu.

Hirigintzako obrak enkante bidez adjudikatu ziren, 111.161.023 pezetaren truke, kontratutako prezioarekiko % 23,62ko beheratzearekin, eta 1997ko azaroaren 24an hasi ziren.

Zenbateko honi 12,89 milioi pezeta gehitu behar zaizkio, proiektuak egitekoak; 24,44 milioi pezeta, lurak erostekoak; 7,88 milioi, obrak zuzentzearenak; 12,56 milioi, horniketa putzuak zundatzekoak; 18,34 milioi, elektrifikazio hitzarmenarenak, eta beste 7 milioi pezeta, gutxi gorabehera, urbanizazio obretan aurreikusi gabekoen-

tzat; gainera, kalkulatu da 6 bat milioi balioko duela urak zundaketa putzutik depositu erregulatzailerara igotzea (honen proiektua idazten ari dira).

Inbertsioa, guztira, 200,27 milioi pezetakoa izanen da, gutxi gorabehera.

Urbanizazio obrak 1998ko irailaren 30ean amaitu dira. Elektrifikazio hitzarmenean adierazitako obrak, berriz, 1998ko urriaren 31 baino lehen bukatuko dira; ura igotzeko proiektua eta obrak, bestalde, 1998ko abenduaren 31 baino lehen burutuko direla aurreikusi da.

2.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak Zaraitzu ibarrean enpresak jar daitezen bultzatzeko? Izan al da emaitza zehatzik? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

Nafarroako Gobernuak ari da sustaketa lanetan; gainera, proiektuen sustatzaileei adierazi die Izizko poligonoa urbanizatzen ari direla, lurak libre daudela eta jaso ditzaketen laguntzak Europako Batasunak eskualde horretarako baimentzen dituen handienak direla (ETE-en mailan, % 15, Dirulaguntza Garbi Baliokidea, gehi % 10, Dirulaguntza Gordina).

Bidankozeko enpresa bat, zura zerraten baitu, bere instalazioak handitzen eta Izizko industrialdera eroaten ari da, egun. 127 milioi pezetako inbertsioa egin eta kontratu mugagabeko bi lanpostu sortuko ditu. Aurreikusi da 1999 urtearen hasierarako instalazio berriak martxan izanen direla.

3.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak, Zaraitzu ibarrean egiten diren jarduera turistikoari dirulaguntzak handitu eta mugatzeko, eta Iratiko oihaneko erabilera turistikoak bultzatzeko?

Ekimen pribatuarentzako dirulaguntzak: ekitaldi honetan, hotelak eta ostatuak sortu, modernizatu eta handitzeko deialdia onetsi zen; helburua azpiegituretan egindako inbertsioak finantzatzea da, beti ere kalitatearen irizpideari (hots, bezeroak eskatutako zerbitzuak emateari) lehentasuna emanez. Deialdi honetan sartzen dira Zaraitzu ibarrean egindako inbertsioak.

Partzuergoentzako dirulaguntzak: Departamentuak Partzuergoen jarduerak finantzatzen ditu, bai sustapen jarduerak bai eskualdeko turis-

mo eskaintza (seinaleak, aparkalekuak, bideska, etab.) osatzearen egindako inbertsioak. Zaraitzu ibarrak ere jasotzen du horien onura, Pirinioetako Turismo Partzuegoaren bidez.

Toki-entitateentzako (kontzeju, udal eta batzarreak) dirulaguntzak: udalen eta ibarren turismoa indartzeko inbertsio-proiektuentzako dirulaguntzak ematen ditu Departamentuak, Nafarroako toki entitateek eskaturik. Eskura dauden baliabideak egoki kudeatuz aprobetxatzea da helburua (beste zerbaiterako erabiltzen diren eraikinak edo guneak berreskuratu, zerbitzu berriak eskaini, etab.). Zuzeneko enplegua sortzen duten inbertsioak indartu nahi dira, etorkizuneko bideragarritasun ekonomikoa segurtatzen dutenak. Zaraitzu ibarrean, Batzarreak eta udalek eskatzen ahal dituzte dirulaguntza hauek.

Iratiko oihanaren turismo-erabilerak erregulatzea dela eta, Departamentu honek eta Ingurugirokoak bi entitate eskudunekin (Aezkoa ibarreko

Batzarre Nagusia eta Zaraitzu ibarreko Batzarre Nagusia) hitzarmena sinatzea bultzatu du, azken urteotan, horren bidez finantzatzeko bai beharrezkoak diren azpiegituretarako inbertsioak (aparkalekuak, seinaleak, informazio-postuak, sarbideak, etab.) bai horiek era egokian kudeatzeko jarduerak (langileak, informazioa, sustatzeko materiala, etab.). Bi batzarreen arteko desadostasuna dela eta, galdu egin da, urtez urte, Iratiko oihaneko turismo erabilerak aztertu eta, horien artean, ingurugiroaren jasangarritasunarekin (helburu den horrekin) bat datozenak definitzeko aukera.

Ekitaldi honetan, Iratin informazio guneetan jarduteko langileen kontratazioak dakarren kostua Lan Zuzendaritza Nagusiak finantzatu du, enplegu-programaren bidez.

Iruñean, 1998ko urriaren 6an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Castejonen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak Castejonen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak galdera egin du Castejonen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuari Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzak egindako iradokizueni buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzaren erantzuna:

Ez da inolako iradokizunik egin instalazio proiektu horri buruz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan ezarritakoai jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 5ean

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria, Miguel Sanz Sesma

Arga ibaian eta Egues errekan berriz ere izandako kutsadurari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Arga ibaian eta Egues errekan berriz ere izandako kutsadurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Arga ibaian eta Egues errekan hil diren arrainei buruz. Hona Ingu-rugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zein izan dira Arga eta Egues ibaian izandako kutsaduraren arrazoiak?

Ekainaren 29an San Pedroko zubi aldean hilik agertutako arrainak zergatik hil ziren ezin izan da zehaztu. Hala ere, isurkin toxiko txiki bat izan zela uste da eta ibaiaren zati txiki bat kaltetu zuela denbora epe oso labur batez; hori horrela izan zela uste da, zeren eta, arratsalde horretan bertan, kaltetutako ibai zatian hilik agertu ziren espezie bereko arrain askok kolonizatu baitzuten zati hori.

Egues ibaian, ekainaren 26an hilik agertutako arrainei dagokionez, arrazoiak ibilgailuentzako 25.000 litro gasolio isuri zirela izan zen, zisterna kamioi bat husterakoan izandako akats baten ondorioz; hain zuzen ere, Transportes Igoa y Patxi, SA enpresaren horniketa-instalazio propioan gertatu zen.

2. Zer nolako kutsadura edo/eta toxikotasun emaitzak eman dituzte analisisiek?

Arga ibaian eginiko analisisiek erakusten zuteenez, ibaiko oxigeno maila normala zen, eta, hartutako ur laginetan ez zen kloro askerik detektatu, nahiz eta han zeuden langileek esan esan zuten lixiba usain handia zegoela.

Arrainei eginiko nekropsiak ez zuten erakutsi arrainak zergatik agertu ziren hilik.

Egues ibaiko gertaerari dagokionez, ez zen nekropsiarik egin, ezta analisisirik ere, hasieratik jakin izan baitzen arrainak hilik agertzearen arrazoiak.

3. Zer nolako ikerketa egin da sorturiko kutsaduraren arrazoiaren erantzulea edo erantzuleak aurkitzeko?

Aurreneko kasuan, Iruñerriko Mankomunitateko zerbitzu teknikoak ikertu zituen saneamendukolektoreak, eta irregulartasun txiki batzuk antze-man zituen; ez ziren, ordea, horiek izan gertatutakoaren kausa. Guardia Zibilaren SEPRO-NAren laguntza ere eskatu zen, baina horretan ibili ziren taldeen ikerketek, Nafarroako Gobernu-ko taldearenak barne, ez zuten arrainen heriotzaren kausa argitu ahal izan.

Egues ibaian gertatutakoari buruzko ikerketarik egin beharrik ez zen izan, enpresak berak eman zuelako gertaturikoaren berri.

4. Zer nolako ondorioak atera ditu Ingu-rugiro Departamentuak gertaturikoari buruz eta zein prebentzio neurri hartuko ditu gertatutakoaren antzeko egitateak berriz ez daitezen gerta.

Ingu-rugiro Departamentuak, ingurugiroaren eta uren kalitateari eutsi eta kalitate hori hobetzearekin zerikusia duten erakundeekin batera, bi mota-tako jarduketak egiten ditu: kalteei aurrera hartzeko jarduketak eta kalteak zuzentzekoak.

Aurreneko horien artean, hurrengoak: neurri zuzentzaileak jartzea eskatzea jarduera-lizentzia eskuratu aurretik eta jarduera sailkatuak ireki aurretik, urarentzako onargarriak ez diren hondakin-urik isur ez dadin lortzeko; eta hiriko hondakin-urentzako saneamendu-sareak eta ur horiek tratatzeko instalazioak jartzea, Nafarroako ibaien saneamendurako Planak hori gitea ezartzen baitu.

Bigarrenen artean, ondoko hauek: ur-hondakin handiak dituzten jardueren behaketa eta kontrola, laginak hartuz eta analisi fisiko-kimikoak eginez; eta ibaien kalitatea zaintzea, eta baita ere baime-nik ez duten isurkinak egin ez daitezen egin zain-tzea, aurrez ezarritako kalitate helburuak bermatzearen.

Honekin batera doakizu Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingu-rugiro Batzordean ibaien ekosistema hobetzeko agertu nuen jarduketa programaren laburpena.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Negutegi-efektua eragiten duten gas igorpenak gutxitzeko Parlamentu honek Nafarroako Gobernuari eskatutako jarduketa proiektuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Negutegi-efektua eragiten duten gas igorpenak gutxitzeko Parlamentu honek Nafarroako Gobernuari eskatutako jarduketa proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak galdera egin du negutegi-efektua eragiten duten gas igorpenak gutxitzeko Parlamentu honek Nafarroako Gobernuari eskatutako jarduketa proiektuari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Energiaren aurrezte-maila hobea lortzearen, Nafarroako Gobernuak jarduketa zehatzik egin du, egiten du edo aurreikusi du? Zein? Laburki adierazi.

Energia aurrezteko jarduketa multzo bat zehaztu da, eta Nafarroako Gobernuak horiek egiten dihardu. Nafarroan Energia Aurrezteko Planarekin daude lotuta jarduketak; plan hori Nafarroako Parlamentuko Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Bartzordeak onetsi zuen, 1997ko azaroaren 5ean egindako bilkuran.

2. Nafarroako Gobernuak jarduketa zehatzik egin du, egiten du edo aurreikusi du erabiltzen dituen eraikin handietan, eraikin horien energia-eraginkortasuna hobetzeko bai energia berrizta-

garriak erabiliz, bai orokorrean energia kontsumoa gutxituz? Egin al du horretarako energi auditoretzarik?

Administrazioko eraikin handietan, Energi Auditoretzen Plan bat ari dira burutzen. Proposatutako neurriak hartu ondoren, 1.870 Tep/urteko energi aurrezte lortzea espero da.

3. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du energia kontsumoa jaitea edo energia berriztagarriak erabiltzea bultzatzen duen jarduketa zehatz bat, horrela industrien ingurugiro kalitatea hobetzeko?

Nafarroako Gobernuak industri sektorerako aurreikusi dituen jarduketak honakoak dira:

– Energi auditoretzak, prozesu industrialetan.

– Nafarroako enpresetan kogenerazio plantak jartzea sustatu.

– Zaharkitutako bero galdarak utzi eta gas naturaleko beste batzuk jartzea edo kontrol sistema berriak sartzeko sustatu.

– Energi diagnostikoak industrietan.

Neurri hauekin guztiekin, 52.600 Tep/urteko aurrezte lortu nahi da.

4. Nafarroako Gobernuak jarduketa zehatzik edo balorazio ikerketarik egin du, egiten du edo aurreikusi du, horrela ibilgailu motordunen energia-eragingarritasuna hobetzeko neurriak ezarri ahal izateko? Eta garraio sektorean?

Garraio sektorean zehaztutako jarduketak, programa hauen baitan daude, funtsean:

– Hirietan garrio publikoa gehiago erabili eta horren ondorioz energi kontsumoa gutxitzeko programa.

– Taxieta eta zerbitzu publikoko beste ibilgailu batzuetan G.L.P. ezartzea.

– Guztiek trena erabil dezaten sustatzea, garraiabide horrek garraio pribatuak baino gutxiago poluitzen baitu.

5. Zer jarduketa ondorioztatu dira Nafarroako Parlamentuak atmosferara CO₂ igorpenak gutxitzeko onetsitako edo onesteko dituen planetatik? Zein planetan dute, gehienbat, eragina jarduketa horiek? Aurrekusi al du Nafarroako Gobernuak aipatutako planetarako beste neurririk proposatzea esandako igorpenak gutxitzeko?

Negutegi-efektua eragiten duten gas igorpenak gutxitzeko jarduketa proiektua onetsi zuen Nafarroako Gobernuak, aurreko irailaren 21eko bilkuran. Nafarroako Parlamentura igorri da tramitaziorako. Bertan CO₂ igorpenak gutxitzeko zehaztu diren jarduketa guztiak agertzen dira.

6. Nafarroako Gobernuak jarduketa zehatzik egin du, egiten du edo aurrekusi du energia arloan lan egiten duten profesionalak trebatu eta ardurarazteko? Eta beste biztanle guztiarentzako?

Trebatu eta ardurarazteko jarduketak ere aipatutako Proiektuan agertzen dira. Horien artean hauek dira nabarmentzekoak:

– Energi eraginkortasuna industrietan; ikastaroak, moduluka.

– Ikastaroak: Eraginkortasuna sektore publikoko mantentze tekniken kudeaketa energetikoan.

– Jardunaldi-bilera monografikoak, arkitektu eta profesionalentzat.

– Energiaren razionalizazio eragiketei eta teknologiar buruzko foileto espezifikokoak, enpresentzat eta ingeniariarentzat.

– Lanbide Heziketako irakasleentzako ikastaroak: energi eraginkortasuna industrian.

Badira, gainera, publikoarentzako informazio kanpainak eta hezkuntza kanpainak ikastetxeetan.

7. Nafarroako Gobernuak neurtu al du, zehazki edo orokorrean, galdera hauei buruzko jarduketak izanen luketen eragina energiaren arloan, eta horiegatiko gastuak, eta gure komunitatearen CO₂ igorpenak zenbatetan gutxituko liratekeen?

Zehaztutako jarduketaren eragina kalkulatu da: 111.700 Tep/urte aurreztuko da bukaerako energiaren kontsumoan, eta 302.938 Tep/urte hasierako energiaren kontsumoan. Kalkulatu da 1.515.177 Tm/urte gutxituko direla CO₂ igorpenak.

1997-2000 aldiko Proiektuan jasotako jarduketaren kostua 167.300.000 pezetakoa dela kalkulatu da.

Kalkulu horretan ez dira sartu gasifikazio planean aurreikusitako inbertsioak, Parlamentuak onetsi zituen haiek. Orobat, ez dira sartu zergakenkariak edo fondo galdura ematen diren dirulaguntzak; laguntza hauen helburua energia berriztagarriak eta aniztasun energetikoa sustatzea da.

CO₂ finkatzeko duten eraginagatik, neurri osagarri gisara sartu dira Oihan Plana (2000. urtetik aitzina, 10 urtetan, urteko 100.000.000 pezeta inbertitzea aurrekusi da), eta, Bolivian Iténez-ko Oihan Erreserba mantentzeko, Nafarroako Gobernuak sinatutako lankidetzaren hitzarmena (bost urtetan, kostua 50.000.000 pezetakoa da); zenbateko horiek ez dira aurreko kalkuluan kontuan izan.

8. Noizko aurreikusten du bidaltzea Nafarroako Gobernuak ganbara honek onetsitako mozioan eskatzen den proiektua?

Negutegi-efektua eragiten duten gas igorpenak gutxitzeko jarduketa proiektua igorri zaio Parlamentuari, aipatutako Gobernu erabakia betez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluko eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Bidasoa ibaiaren ingurunean lurzoruen kutsadura kontrolatu eta jarraitzeko jarduketan emaitzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Bidasoa ibaiaren ingurunean lurzoruen kutsadura kontrolatu eta jarraitzeko jarduketan emaitzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Bidasoa ibaiaren ingurunean lurzoruen kutsadura kontrolatu eta jarraitzeko jarduketan emaitzei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer emaitza izan ditu laginketa biologikoak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak 1998ko udaberrian amaitzea aurreikusita zuenak? Somatu al da kalterik leku horretako faunan?

Lortutako emaitzak honi erantsitako taulan agertzen dira.

Lortutako emaitzak ebaluatzeko, erreferentzia gisara Batzordearen 93-06-16ko Erabakia (analisi-metodoak, laginketa planak eta, arrantzako produktuetan, gehienezko merkurio-mailak zehazten dituen) eta Osasun eta Kontsumo Ministerioaren abuztuaren 2ko Agindua (arau mikrobiologikoei eta, arrantzako produktuetan eta gizakiaren kontsumorako akuikultura, metal pisuen gehienezko kontzentrazioei buruzkoa) hartu dira.

Bi arau horietan merkurio, kobre eta berun edukien gehienezko mailak zehazten dira. Ondorio orokorra da inoiz gainditu egin direla aipatu parametroetan baimendutako gehienezko baloreak.

Aceralia lantegiaren parean harrapatutako aingira batean, behar baino merkurio pixka bat gehiago dago (1,1 ppm, 1 ppm beharrean).

Berunaz den bezainbatean, lantegi horren parean atzemandako beste aingira batean behar baino pixka bat gehiago dago (5,3 ppm, 2 ppm beharrean).

Gehienezko kobre maila gainditu da aztertutako amuarrain gutzietan eta aingira batean.

Guneen artean, lantegi ondo aipatu behar da, han atzemandako arrainetan merkurio, berun eta kobre mailak altuagoak baitira. Zernahi dela, azpimarratu behar da, nahiz eta espezieek habitat zehatzak izan, laginak hartu diren guneen artean ez dagoela eten fisikorik eta, beraz, ez dago ziurtatzerik gune batean hartutako espezieak beti hor bizi izan direnik.

Gainera, aztertu diren aleen kopurua dela eta, argi adierazi behar da laginketa mugatua izan dela. Egun gutxi barru, itxuraz kalteak izan dituen gune horretan, zenbait lekutan beste laginketa bat egiteko asmoa dugu.

2. Zer neurri proposatzen dira laginketa biologikoa amaitu ondoren, aipatutako hasierako ikerlanean identifikaturiko arriskuak -laginketa biologikoarekin konfirmatzeko daudenak- gutxitzeko?

Foko bakoitzerako neurri berezi batzuk proposatu dira:

– Katazpegiko hondakindegirako proposatu diren berreskuratze eta kudeaketa neurriak aplikatzea.

– Eskolamendiko meategien ingurura aldizka joatea, urak kaltetu ditzakeen aldaketarik ez dela egon egiaztatuzera.

– Xeheki aztertu ea Aceraliako produkzio prozesuak baduen harremanik lantegiaren aurreko jalkinetan aurkitutako metal pisuen mailarekin.

– Gune horretan egiten diren laginketa sistematikoak aprobetxatzea, datu gehiago edukitzeko arrainek duten metal pisuaren inguruan.

3. Zein izan da laginketa biologikoa egiteko aukeratutako sistema? Zergatik?

Arrantza elektrikoa da laginketa biologikoa egiteko aukeratu den sistema; metodo hori erabili ohi da arrainen populazioak kontrolatzeko.

4. Zein izan da ikertutako espezie kopurua? Bidasoa ibaian eta urak horra isurtzen dituzten

erreketan, zein puntu zehatzetan egin dira laginketak?

Lau espezieren laginketa egin da: aingira, amuarraina, txipa eta zarboa.

Laginketako puntuak honakoak izan ziren, zehazki:

– Katazpegi zabortegiko irteeran dagoen erreka: aingira eta amuarraina.

– Aceraliaren isurketa puntua baino beherago, Onin ibaian: aingira, amuarraina eta txipa.

– Ondalasko erreka: aingira, amuarraina eta txipa.

– Barraka erreka: amuarraina, aingira eta zarboa.

– Zalain erreka, Zalain auzoaren parean: txipa, amuarraina, aingira eta gobioa.

Hori guztia jakinarazi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraiki.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

(Oharra: Aipatu taula Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Abeltzaintza ustiatgien ingurugiro eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak abeltzaintza ustiatgien ingurugiro eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak galdera egin du abeltzaintzako ustiatgiek ingurugiroan duten eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zeintzuk izan dira 1. artikuluko 2. puntuan agertzen diren mota bakoitzerako dirulaguntza eskaerak? Zera nahi da: dirulaguntza eskatu zen eguna, hori eskatu zuen enpresa edo erakunde onuradunaren izena, jarduketaren laburpena, zer egunetan eman zen, dirulaguntzaren zenbatekoa eta jarduketa egiten den herriaren izena.

ESKATZAILEA	HERRIA	MOTA	1998	Proiektuaren laburpena	NOIZ ESKATUA	NOIZ EMANA
Deialdiko baldintzak betetzen dituzten eskaerak						
Granja La Serna	Mendigorría	A	7.000.000	Hobekuntzak minden tratamenduan	98-04-06	98-09-15
Alberto Larrea	Girgillao	B	5.985.904	Hobekuntzak minden tratamenduan	98-05-13	98-09-15
Alberto Glaría	Garde	A	299.198	Hobekuntzak minden tratamenduan	98-05-13	98-09-11
Pedro Miguel Iraizoz	Gorrontz	B	274.800	Hobek. minden tratam. eta ureztapena	97-03-18	98-09-15
Elevage Iparalde	Zugarramurdi	A	6.212.938	Lohiak atera eta nitrifikazioa hobetzea	98-05-29	98-09-15
Manuel M ^a Argaña	Albiasu	B	1.291.961	Minden hobia handitzea	98-08-14	98-09-15
GUZTIRA			21.064.801			

Deialdian eskatutako dokumentazioa osatu behar dutenak						
Justo Mendía	Olague	B	15.907.591	Minden balsa eta ureztatze-sarea	98-01-22	
Juan José Urroz	Donamaria	A	zehaztu gabe	Minden hobia eraikitzea	98-05-29	

2. 1998ko ekitaldirako, gehitu al da aurreko urteetan hartutako aurrekontu konpromisorik? Baiezkoan, zera nahi da: espedienteak, zenbatekoak eta urte bakoitzerako konpromisoak.

Ez da bat ere gehitu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Lurzoruak deskontaminatzeko egindako jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Lurzoruak deskontaminatzeko egindako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du lurzoruen deskontaminazioari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Kontusail horren erabilera arautzerakoan aplikagarri zaizkion lege, dekretu eta foru aginuen zerrenda.

Ez dago lege, dekretu edo foru agindurik kontusail horren erabilera arautzerakoan aplikagarria denik.

2.- 1997ko ekitaldian, kontusail horrek izan duen zenbatekoa osatu arte egin diren kreditu handitzeak bai foru agindu eta ebazpenen bidez, bai aurrekontutik kanpoko ekarpen edo finantziazioaren bidez (beste instituzio batzuen laguntzak).

Ez da kontusailean kreditu handitzerik izan.

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarria izan den zenbateko osoaren desglosea, kreditu erabilgarria edo 1996ko ekitaldian konprometitua izateagatik.

Ondokoa da 1997ko ekitaldian erabilgarria izan den zenbateko osoaren azalpena:

IZENA	1996an HITZARTUA	1997an HITZARTUA
Lur kontaminatuen inbentarioa	--	6.380.000
Bidasoa ibaiaren inguruen kontaminazioaren jarraipena eta kontrola	5.907.430	--
Lur kontaminatuen kontaminazioaren jarraipena eta kontrola	7.087.000	--

4.- Kontusail horren kargura eginiko jardueren zerrenda. Zera eskatzen da: proiektuak, jarduketak, etab., eta horiei buruzko ondoko xehetasunak: hasiera eguna, jarduketa egin duen edo egi-ten ari den enpresa, entitate edo instituzioa, jarduketaren azalpen laburra, bukaera eguna, aurrekontu kostua eta aipatutako jarduketak egi-ten diren herriak.

Ondoko jarduketak egin izan dira:

* Lur kontaminatuen inbentarioa: Nafarroan Kutsatuta Egon Litezkeen Lurren Inbentarioa da, industri jardueri buruz zeuden informazioetan oinarriturik Emgrisa enpresak egin. Lanaren ondorioz kutsatuta egon litezkeen 275 jardueraren zerrenda egin zen, horiek dauden tokiek izan lezaketen arriskuaren arabera sailkatuak. Emaizekin datu-base bat ere egin zen.

Kontratua 1997ko urtarrilaren 30ean sinatu zen, eta lana 1997ko irailaren 3an ordaindu.

* Bidasoa ibaiaren inguruen kontaminazioaren jarraipena eta kontrola.

Erreketako arrain, jalkin zein uren kontaminazioaren jarraipena da, inguru horretako bi toki kontaminatuen inguruan: Katazpegiko zabortegia eta Eskolamendiko meatzeak. Covitecma enpresak egin zuen lana, eta, horren ondorioz, inguruaren, uraren, jalkinen eta arrainen egoera ezagutu ahal izan zen, metal pisuek eraindako kontaminazioaz den bezainbatean.

Kontratua 1996ko urriaren 11n sinatu zen, eta azken ordainketa 1998ko ekainaren 16an egin zen.

* Lur kontaminatuen kontaminazioaren jarraipena eta kontrola.

Lur-azpiko uraren kontaminazioaren jarraipena egin da, aldezturik aztertutako bost toki kontaminatutan, laginak hilerok hartuz.

Emgrisa enpresak egin zuen lana.

Kontratua 1996ko urriaren 11n sinatu zen, eta azken ordainketa 1997ko azaroaren 6an egin zen.

5.- 1997 eta 1998rako hartutako gastu konpromisoa, eta ekitaldi honetan izapidatutako espedienteak.

1998ko ekitaldi honetan Funverako (Bera) lur kontaminatuaren saneamendua egitea kontratatu da, 13.214.000 pezetatan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta

ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Irati eta Aragon ibaietako landarediaren azterlanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Irati eta Aragon ibaietako landarediaren azterlanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Irati ibaiaren (Agoiztik aurrera) eta Aragon ibaiaren (Iratitik Ebrora) inguruko landarediaren azterlanari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein zen aipatutako bideragarritasun azterlanaren kontratatzearen helburua? Zer enpresa edo instituzio kontratatu zen? Zein izan zen aurrekontua?

Irati ibaiaren eta Aragon ibaiaren aipatu tarteen inguruko landaredia, batez ere zeharkatzen dituzten lekune natural babestuetakoa ezagutzea du helburu azterlan horrek.

Azterlanaren Euskal Herriko Unibertsitateari adjudikatu zitzaion, 9.999.048 pezetatan.

2.- Zer ondorio atera ditu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aipatu azterlanaren ondotik? Jarduketa planik eragin al du Irati eta Aragon ibaietarako?

Azterlanak lagundu egin du aipatu ibaien inguruko landaredia hobeto ezagutzen. Azterlan horren eta Departamentuaren beste batzuen ondorioz, premia ikusi da prestatzeko ez jarduketa plan berezi bat, baina bai urbazterrak berreskuratzeko proiektu integralak, non aintzat hartu behar ko baitira ibaien zein haietan gainezka egin dezaketen alderdien kalitateari eragiten dioten gorabehera guztiak.

3.- Aurreikusitako al du Nafarroako Gobernuak jarduketa praktikorik aipatutako azterlan horren emaitzen ondorioz?

Bai. Aragon ibaiaren urbazterrak berreskuratzeko proiektu integrala prestakuntza fasean da. Horren arabera, modu eraginkorrez babesteko da ibaiaren inguruko landaredia eta egokitu egingen da korridore ekologiko gisa, ibarbasoan eragina duen lur-matrizearen zein ibaiaren dinamikaren berezko beste faktore batzuekin lotuz babes eraginkor hori.

4.- Ari al da Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua antzeko azterlanik egiten gure komunitateko beste parke natural edo eremu babesturen batean?

Bai. Hasia da dagoeneko Ega eta Urederra ibaien arroetarako proiektu integralaren prestakuntza.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Bertizko Jaurerriko ugaztunen inbentarioa eta kudeaketarako irizpideei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Bertizko Jaurerriko ugaztunen inbentarioa eta kudeaketarako irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Bertizko Jaurerriko ugaztunen inbentarioa eta kudeaketarako irizpideei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein zen aipatutako bideragarritasun azterlanaren helburua? Zer enpresa edo instituzio kontratatu zen? Zein izan zen aurrekontua?

Azterlanaren helburuak ondokoak ziren:

A) Bertizko Jaurerriko Parke Naturaleko etxe-eta basa-ugaztun larri zein ertainetako espezieen inbentarioa egitea.

B) Espezie horien presentziak naturgune babestuan eragin ditzakeen arazo eta gatazkak, baita gizakiak parkea erabiltzeak espezie horien kontserbazioan sor ditzakeenak ere, identifikatzea.

C) Kudeaketarako irizpideak ematea: parkearen kudeaketari buruzko zenbait alderditan esku hartzeko ala ez hartzeko beharra; espezieen monitarizazioa; basoaren birsorkuntzan ugartasunak dituen arriskuak; espezie horien biologiar buruzko xehetasunak ematea parkera eginiko bisita gidatuetan.

D) Parkeko ugaztunen kopurua kontrolatzea, hala egin behar bada.

EGA, S.C.ri adjudikatu zitzaion azterlanaren, 4.650.000 pezetatan.

2.- Zer ondorio atera ditu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aipatu azterlanaren ondotik? Jarduketa plan berezirik eragin al du?

Azterlanak lagundu egin du Bertizko parke naturaleko ugaztun larri eta ertainen espezieak, baita horien ugartasuna eta banaketa ere, hobeto ezagutzen.

Azterlanen arabera, ez da behar fauna mota horretarako jarduketa plan berezirik Bertizko parkean.

3.- Aurreikusitako al du Nafarroako Gobernuak jarduketa praktikorik aipatutako azterlan horren emaitzen ondorioz?

Bai. Azterlanari esker dakizkigunak aintzat hartzen ari dira Bertizen egiten diren hurrengo jarduketak planifikatzerakoan. Jarduketa horiek helburu dute galtzen ari den biodibertsitatea berreskuratzea, batez ere haritzak eta horien inguruko fauna sustatuz, parkean horiek galtzeko arriskua baitago.

4.- Ari al da Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua antzeko azterlanik egiten gure komunitateko beste parke natural edo eremu babesturen batean?

Ez. Departamentuak aldatu egin du azterlan horiek egiteko irizpidea. Hala, fauna baliotsuari buruzko azterlanak besterik gabe eransten zaizkie mendien antolamenduari buruzko azterlan guztiei, zeren interesgarriagozat jotzen baita fauna florari eta egiten den kudeaketari lotuta aztertu, eta ez, Bertizen egin zen gisa, fauna bera bakarrik aztertu, ondo ezagutzen ez diren beste alderdi batzuekiko nola edo halako loturak eginez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 29an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Nafarroako basoilo handien populazioaren bideragarritasun azterlanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nafarroako basoilo handien populazioaren bideragarritasun azterlanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du basoilo handien populazioaren bideragarritasun azterlanari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein zen aipatutako bideragarritasun azterlanaren kontratatzearen helburua? Zer enpresa edo instituzio kontratatu zen? Zein izan zen aurrekontua?

Aipatu kontratazioaren helburua ondokoa zen:

- Habitata aztertzea, nekazaritza ingurunea osatzen dutenen artetik basoilo handiak aukeratu eta nahiago dituen elementuei dagokienez, eta Nafarroako egungo habitata balioestea, gaur egungo egoerarekin mantentzeko bideak kopurua ebaluatzearen.

- Basoiloen azterketa demografikoa, espezieak Nafarroan dituen parametro demografikoekin eta aleekin etorkizunean berez iraunarazteko aukera, hots, basoiloen populazioa sendotzeko neurririk hartu gabe, aurreikustea ahalbidetzeko.

Azterlanaren Consultora de Recursos Naturales, S.L. enpresari adjudikatu zitzaion, 8.450.000 pezetatan.

2.- Zer ondorio atera ditu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aipatu azterlanaren ondotik? Jarduketara plan berezirik eragin al du?

3.- Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketara praktikorik aipatutako azterlan horren emaitzen ondorioz?

Ondorio nagusia hau da: Nafarroan gaur egun diren basoilo handien etorkizuna, epe ertainera, kolokan dago populazioaren dentsitate baxua dela eta. Espeziaren biziraupena sendotze genetikoa lortzen baldin bada gertatuko da.

Nafarroako Gobernuak habitat potentzial bat egokitu du estepako hegaztiendako, basoilo handiak estepako hegaztiak baitira, Nafarroan “populazio iturri” bat sortzearen. Horretarako, onetsi egin da jadanik Bardeako Natur Baliabideak Antolatzeke Plana, non habitata hobetzeko neurriak berriak eta behar adinako finantziazioarekin aurreikusten diren.

Aipatu planari esker, estepako espezieen habitata kontserbatzeko auzo-plan baten oinarria eratu da, eta horri gehitu egin behar zaio Nafarroako Gobernuak berriki onetsi duela Natur eremuen babesarekin lotutako nekazaritza-ingurumenarentzako laguntzak ezartzen dituen irailaren 7ko 265/1998 Foru Dekretua, Nafarroako erdialdean eta hegoaldean aplikatzeko dena. Bada, bi horiek estepako espezieen multzoa –guztiak ere habitat komun baten aldaketarekiko sentiberak berreskuratzeko kudeaketa esparru bat eratzen dute. Horrela, aprobeixatu egiten dira espezie baten gaineko jarduketek habitat bereko beste espezie batzuen gainean izan ditzaketen sinergiak. Azken buruan, plan bateratua dugu Bardeako zein Nafarroako habitat potentzialetako estepako espezieen habitatak kontserbatzeko.

4.- Ari al da Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua antzeko azterlanik egiten gure komunitateko beste parke natural edo eremu babesturen batean?

Azterlanak egin baino, Gobernuak nahiago izan du nekazaritza-ingurumenarentzako laguntzei buruzko foru dekretu bat onetsi, estepako hegaztiak har dezaketen lurralde osoan habitata hobetzearren, La Baigorriana (bertan dago basoilo handien Nafarroako koloniarik nagusia) eta La Sardako berezitasuna nabarmenduz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Urantziako Udaleko dermioan Odron ibaiaren ibilgua handitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak urantziako Udaleko dermioan Odron ibaiaren ibilgua handitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21ko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Urantziako Udaleko dermioan Odron ibaiaren ibilgua handitzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola eta noiz izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako jarduketa egin behararen berri?

Urantziako Udalak idazki bat bidali zion Herrilan Zerbitzuari, Nafarroako Gobernuari Cidacos ibaiak gainezka egiteak eragindako kalteen berri ematearren; bertan, zerbitzu horretako kideek bisita egiteko eskatzen zen, uholdeek ukitutako alerdiak ikuskatzearren.

Ondoren, Herrilan Zerbitzuko teknikarien aholkuz, Cidacos ibaiaren ibilgua garbitzeko eskatu zion Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari Urantziako Udalak, halako lanak arautzen dituen apirilaren 22ko 431/1998 Foru Aginduan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak emandako hartan ezarritako dirulaguntzen babesean.

2. Zer egoeratan dago jarduketa horri buruzko espedienteak? Zein departamentuk du eskumena horrelako jarduketak egiteko?

Urantziako Udalaren eskaera ikusita, espedienteak abiarazi zen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan, eta Cidacos ibaiak Urantziako Udaleko dermioan egiten duen bidea ibili zuten departamentu hone-

tako teknikariek, Udaleko alkateak eta zinegotziek.

Aipatzen den espedienteak Herrilan Zerbitzuarekin bat etorri egin zen 1997an, eta itxita eta artxibaturik dago.

1998ko urrian zabalduko da, Urantziako Udalak eskatuta, Odron ibaiaren gaineko jarduketa.

Jarduketa horien gaineko eskumenak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagozkio, Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuaren bitartez. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren ardura da, Herrilan Zerbitzuaren bitartez, ibaiak babestu eta bide-ratzeko jarduketak burutzea, batez ere herriguneetan.

3. Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak berriz ere ez gertatzeko?

Datuak hartu eta berehala, jarduketa presakoa zenez gero, 1997ko dragatze kanpainaren barruan sartu zen, eta ibilguaren garbiketa orokorra egin zen Iruña-Logroño errepedetik hasi eta Camargo eta Prado Salobre izeneko alderdietaraino, ostruken granjak hartzen dituen lurretatik behera, hura izan baitzen aurreko uholdeetan gehien kaltetutako tartea. Jarduketak Cidacos ibaiaren ibilguko 4 bat kilometro hartu zituen, eta garbitu egin ziren, baita ere, alderdi hartan instalatutako laborantzako haztegien instalazioak urpe-ratzean eragin zuten alboko errekek.

Arestian azaldutako jarduketak gorabehera, Urantziako Udalak beste dragatze-eskaera bat egin du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren apirilaren 8ko 369/1998 Foru Aginduaren babesean. Aurtengo kanpainan, urrian hain zuzen ere, aurreikusita dago Cidacos ibaia, Urantziako dermioaren behealdean, eta Cantarrana zein Cardiel errekek garbitzen jarraitzea.

Dena den, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua hainbat arrori buruzko azterlanak egiten ari da, alegia, aztertzen ari da horietan egin beharreko jarduketak, horien artean baitago uholdeei aurre hartzea, batez ere herriguneak uki baditzakete.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

San Adriandik igarotzean Ega ibaiko ureztatze-ubide baten kutsadurari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak San Adriandik igarotzean Ega ibaiko ureztatze-ubide baten kutsadurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak galdera egin du, San Adrianen, Ega ibaiko ureztatze-ubide batean hil diren arrainei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zein ekintzari heldu dio Nafarroako Gobernuak Ega ibaiko ureztatze-ubide batean, San Adriandik hurbil, agertu diren milaka arrain hilak direla-eta? Zeintzuk dira ekintza horien ondorioak?

San Adriango Udalean arrainak hil zirela jakin genuen abuztuaren 5ean. Jasotako lehen informazioek zioten herri horretako ureztatze-ubide batean 5.000ren bat barbo agertu zirela hilik, ustez aurreko asteburuan hilak. Informazio iturrietako batzuek, bestalde, adierazten zuten alderdi hartako enpresa batzuek zuzeneko isurketak egiten zituztela ubidera, eta horrek uraren poluzio maila altua zekarrela, heriotzaren kausa izan zitekeena.

Departamentuak abisua eman zien Ingurugirozaintzari eta SEPRONARI, bertaratu, heriotzen kausa zehazteko azterlanak egin eta ibaiko arrain hilak ken zitzaten. Eta, bestalde, harremanak izan ziren egoerarekin zerikusia zuten zenbait pertsona eta erakundeekin, heriotzen zergatia zehaztu ahal izateko.

Hona jarduketaren hauen ondorioak:

Egiaztatu zen San Adriango presa deritzonetik sortzen den ureztatze-ubidearen barruan hil zirela, Andosillako udal mugapean, eta Ega ibaian ez zela kalterik izan. Hildako arrainak 1.500-2.000

inguru zirela kalkulatu zuen Ureztatzaileen Sindikatuko zaindaria; 40-50 kg ziren Guardia Zibila-ren arabera. Zernahi dela, ezinezkoa zen egiaztatzea bai ubidean zegoen landaretza ugariagatik bai zaindaria, hildako arrainak soroetara iritsi ez zitezten, hilaren 4an ubideko uhateei eragin ziela-ko.

Ubidera egiten den industri-isurketa bakarra Inter Malta enpresarena da; aldeztu aurretik araztu egiten dituzte hondakin-urak, eta, gainera, arazketa prozesua hobetu egin da instalazioak handitu baitituzte. Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuak hileroko kontrolatzen du isurketa hori; egindako azken kontroletan (ekainaren 24koan eta abuztuaren 6koan) enpresak duen isurtzeko-baimenean ezarritako baldintzak bete egiten ziren. Inter Malta hondakin-ur araztua isurtzen duen puntutik gora eta behera aurkitu ziren hildako arrainak eta, beraz, ez zen baztertu haren errua izan zitekeela-koa.

Hainbat iturrik adierazi du lehen ere izan direla halako gertaerak herri berean. Carcar eta Andosilla herrietako isurketei egozten dizkie halakoak, horiek Ega ibaiaren uraren kalitatea kaltetu baitute; gainera, udan emaria eskasa da, errekan gora (bereziki Lerinen) dauden ureztatze-sailek ura hartzen dutelako. Azken gertakari honen ondorioz, nekazarien eskaerak eta beharrak asetzeko, sartzen den emari eskasarekin betetze eta huste zikloak egin behar dira ubidearen barruan; horrek ubidean ura aldi batez gelditzea dakar eta, beraz, anoxia-baldintzak, arrainak hil ditzaketanak.

Ega ibaian hartutako ur laginen emaitza analitikoek erakusten dute ez dagoela oxigeno gutxiagiko egoerarik, eta hori bat dator bertan arrain biziak egotearekin. Beraz, fenomeno hildako arrainak agertu zireneko ureztatze-ubidearena baino ez da.

2. Arrainak hiltzea eragin duenari buruzko ikerketarik ireki ote den, eta zer emaitzarekin.

Arestian azaldutako emaitza izan du egindako ikerketak.

3. Ingurugiro Departamentuak zer emendiozko neurri hartu du aurreko bestelako kutsadurarik ekiditeko? Zer ondorioekin?

Aurreko, agorraldia iraunkorra izan denez, ondorengo neurriak hartu ziren:

– Ibaiak zaintzeko, lankidetzaz indartsuagoa eskatzea Guardia Zibileko SEPRONARI.

– Lankidetzaz indartsuagoa eskatzea Iruñerriko Mankomunitateari, haren jarduketa esparruan kolektoreen sarea zaintzeko.

– Iruñerriko enpresak kenduta, ibaiak gehien poluitu ditzaketen 130 enpresei gutunak bidaltzea, eskatuz beren instalazioak kontrolatzeko eta mantentzeko neurriak indartu ditzatela, ustekabeko isurketarik egon ez dadin. Gomendio bera igorri zitzaion Iruñerriko Mankomunitateari, hark bere jarduketa esparruan dauden enpresei bidaltzeko.

Orobat, Ibaien Ekosistema hobetzeko jarduketara programa bat egin du Departamentuak. Berrikitan eman dut horren berri Parlamentuan, eta haren laburpena eranskinean duzu.

4. Nafarroako Gobernuari zer iruditzen zaizkio Nafarroako ibaietan behin eta berriz, berezko ingurua larri kaltetzeraino, gertatzen ari diren kontrolgabeko isurketa horiek?

Halako gertakariak aldizka jazotzen dira Nafarroan eta honelako sailkapena egiten ahal da:

– Zuzen burututako instalazioetan, behar beste neurri zuzentzaile dituztenetan, gertatutako istripuak.

– Neurri zuzentzailerik gabeko instalazioetan gertatu istripuak.

– Kontrolik gabeko isurketak.

– Uraren kalitatea txartzea agorrialdi handiko garaietan, ibaietan dabilen emaria gutxitu delako, faunarentzako bizi baldintzak muga-mugakoak diren alderdietan, leku horietan hirietako hondakin urak saneatzeko instalazioak aurreikusita daudelarik.

– Aurreko egoera hori bera, baina, agorraldi luzeen ondoren euria egin duenez, ibaietan dabilen emaria bat-batean igo delako.

Gaian aditua ez den edonori, jakina, kontraesana iruditzen ahal zaio ibaien kalitatea hobetzea (eta hori lortzen ari da) eta aldi berean arrainen heriotza dakarten gertakariak errepikatzea, askotan, gainera, ibai zati beretan.

Izan ere, enpresa batzuk eta abeltzaintzako zenbait ustiategi hobetu beharrean daude, instalazioak ez ezik baita mentalitateak ere, konturatu behar baitute ezinbestekoa dela haien laguntza ingurugiroa zaindu ahal izateko. Horregatik, ingurugiroarentzat onak diren jarduketak arbuizatu dihardutenen kontra gogor egin beharko dugu, haien aurkako neurriak indartuz.

Agian, isurketa kronikoak egoteak kezkatzen gaitu gehien; izan ere, gure ibaietako biologi-kalitatea eta birsortzeko gaitasuna zeharo gutxitu lezakete. Hori ari gara kontrolatzen.

5. Zer diagnostiko egin du Ingurugiro Departamentuak Nafarroako ibaien ingurugiro-egoerari buruz?

Ibaien kalitate orokorra objektiboki neurtzeko, aldizka ebaluatu behar diren parametro fisikokimikoak nahiz parametro biologikoak daude. Ingurugiro Departamentuak dituen datuek erakusten dute azken urteetan, Ibaien Saneamendurako Plana garatu ahala, uren kalitatea dexente hobetu dela.

Orobat, indize biotikoetan (bioaniztasun eta espezieen ugartasun indizeak bezalakoetan) oinarritutako datuek gure ibaietako kalitatea goraka doala erakusten dute.

Nafarroako ibaietako arrain populazioen azterlanetan (hots, duela zenbait urte hasita, Departamentuak egindako lanetan) oinarritutako datuek adierazten dute, era berean, gure ibaietako aberastasunaren eta bioaniztasunaren kalitateari eusten ari zaiola.

Espainiaren baitan Nafarroako ibaietako urek duten kalitate egokia lortzeko, jakina, ahaleginak egin behar izan dira, eta ez da alferrikakoa izan duela bederatzi urtetik hona (1989tik hona) Ibaien Saneamendurako Plana ezartzea. Plan horrek ekarri du kalitatearen hobetzea, eta hori inplementatzen jarraitu beharko dugu harik eta isurketa oro sistematikoki araztea lortu arte.

1989an Plan Zuzentzailea onartu eta 1998ra arteko epean egindako inbertsioei esker (10.433 milioi pezeta izan dira guztira), 26 araztegi egin dira 26 populazio-gunetan. Hala arazketa biologikoa duen populazioa 1989ko 30.400 biztanleetatik 1998ko amaierako 400.000 biztanleetara igaroko da, Arazuriko araztegiko tratamendu biologikoa martxan jarri ondoren.

Oro har, jarduketa batzuk lehenetsi eta besteak baino lehenago egin dira, ibaietan eta erreketan ondoriorik onenak lortzearen. Beraz, isurketarik poluitzaileenak tratatu dira lehenik, eta lehenetsia eman zaie uretan gora sortutakoei, ibaiaren beheko zatietan zeudenen aurretik.

Erdialdeko arroetan, non populazioaren % 50 pilatzen den, % 99k izanen ditu araztegiak, 1998ko bukaeran; hegoaldeko eskualdeetan, berriz, % 35 inguruk. Portzentaje hauek handituz joanen dira Saneamendurako Plana inplementatu ahala, eta hori 2005 urtera bitartean izanen da martxan. 1989an arazketa biologikoa populazioa-

ren % 6,6k zuen eta 1998 urtearen amaieran % 73k izanen du.

Jarduketa hau oinarritzkoa eta funtsezkoa da, baina ez da arazo guztien giltza. Are gehiago, zenbait arazo sortzen ditu, hala nola, obra zibilarren ingurugiro-eragina edo isurketak zenbait puntutan pilatzea. Halatan, hobekuntza orokorrak badakartza ere, kalte puntualak zein noizean behingo kalteak egon daitezke.

Bukatzeko, adierazi behar da saneamendu tasak Planaren jarduketak finantzatzen dituela eta

hiriguneetan ezarritako araztegien funtzionamendua bermatzen duela. Egungo araztegien lanaren kostua, guztira, 475 milioi pezetaren ingurukoa da urtean.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Ega ibaian, San Adrian herrian, hain zuzen, arrain hiltzea eragin zuen kutsaguneari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Ega ibaian, San Adrian herrian, hain zuzen, arrain hiltzea eragin zuen kutsaguneari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ega ibaian, San Adrian herrian, hain zuzen, arrain hiltzea eragin zuen kutsaguneari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako kutsaguneari buruz?

Abuztuaren 5ean, San Adriango Udalean arrainak hil zirela jakin genuen. Departamentura iritsi ziren lehen informazioen arabera, herri horretako ureztatze-ubide batean 5000 barbo agertu ziren hilik (ustez, aurreko asteburuan hilak). Informazio iturri batzuek zioten inguruko zenbait enpresak

zuzeneko isurketak egiten zituela ubidera, eta horrek uren poluzio maila altua zekarrela, heriotzaren kausa izan zitekeena.

Departamentuak abisua eman zien Ingurugiro-zaintzari eta SEPRONARI, eta egoera horri lotutako zenbait pertsona eta entitateekin harremanak izan ziren, heriotzaren zergatik zehazteko.

Lekuan bertan egiaztatu zen San Adriango presa deritzonetik sortzen den ureztatze-ubidearen barruan hil zirela, Andosillako udal mugapean, eta Ega ibaian ez zela kalterik izan. Hildako arrainak 1500-2000 inguru zirela kalkulatu zuen Ureztatzaileen Sindikatuko zaindariak, 40-50 kg. ziren Guardia Zibilarren arabera. Zernahi dela, ezinezkoa zen egiaztatzea bai ubidean zegoen landare-tza ugariagatik bai, hildako arrainak soroetara iritsi ez zitezen, zaindariak hilaren 4an ubideko uhatei eragin zielako.

2. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak arrainen heriotzaren zergatia? Isuriak izan al dira edo beste zerbait? Zein lekutan izan zen zehazki kutsagunea? Zer ikerketa egin ditu Nafarroako Gobernuak kutsaguneari buruz?

Ubidera egiten den industri-isurketa bakarra Inter Malta enpresarena da; aldeaz aurretik araztu egiten dituzte hondakin-urak, eta, gainera, arazketa prozesua hobetu egin da instalazioak handitu baitituzte. Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuak hileko kontrolatzen du isurketa hori; egindako azken kontroltan (ekainaren 24koan eta abuztuaren 6koan) enpresak duen isurtzeko-baimenean eza-

rritako baldintzak bete egiten ziren. Intermaltak hondakin-ur araztua isurtzen duen puntutik gora eta behera aurkitu ziren hildako arrainak eta, beraz, ez zen baztertu haren errua izan zitekeelakoa.

Hainbat iturrik adierazi du lehen ere izan direla halako gertaerak herri berean. Carcar eta Andosilla herrietako isurketei egozten dizkie halakoak, horiek Ega ibaiaren uraren kalitatea kaltetu baitute; gainera, udan emaria eskasa da, errekan gora (berezik Lerinen) dauden ureztatze-sailek ura hartzen dutelako. Azken gertakari honen ondorioz, nekazarien eskaerak eta beharrak asetzeko, sartzen den emari eskasarekin betetze eta huste zikloak egin behar dira ubidearen barruan; horrek ubidean ura aldi batez gelditzea dakar eta, beraz, anoxia-baldintzak, arrainak hil ditzaketanak.

Ega ibaian hartutako ur laginen emaitza analitikoek erakusten dute ez dagoela oxigeno gutxiegi-ko egoerarik, eta hori bat dator bertan arrain biziak egotearekin. Beraz, fenomeno hildako arrainak agertu zireneko ureztatze-ubidearena baino ez da.

3. Zer erantzukizun ondoriozta daiteke, aplikagarri den legediaren arabera, kutsagunea eragin zuenarentzat?

Heriotzen ondorioz sortutako kalteak ordaintzea eska daiteke, gertaerarekin lotutako beste Administrazio batzuetatik (esaterako, Ebroko Ur Konfederaziotik) etor litezkeen erantzukizunei kalterik egin gabe. Ebroko Ur Konfederazioari igorri zaio gertakarien txostena.

4. Ondorio larriak eragin dituela uste al du Nafarroako Gobernuak? Zein da, orain, ibaiaren egoera?

Gobernuaren iritzirako, ondorioak ez dira larriak. Gertakaria ureztatze-ubide batean izan zen, eta, aipatutako egunetan nahiz gaur egun, Ega ibaiaren ibilgua ez da kaltetu. Bestenaz, ibai horretan, hildako arrainen kopuruarekin erkatuz gero, ziprinido ugari dago.

5. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak berriz ere ez gertatzeko?

Hau bezalako gertakaririk gehiago izan ez dadin, Carcar-Andosilla-San Adriango hondakin-uren kolektorearen obrak 1999 urterako burutzea aurreikusi da, eta 2000 urterako San Adrianen araztegia kokatuko da. Honek ibaiko uren kalitatea hobetuko du, faunari kalteak eragiteko kausetako bat deuseztuz.

Ibilguen eta aprobetxamenduen arazoa dela eta, erregulazio azpiegitura egokien bidez bermatzen ez diren bitartean, egoera irregularren salaketa egin behar da, berriz, Ebroko Ur Konfederazioan, haiek zaindu eta kontralatzeko eskumena baitu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Nafarroan, 1998 urtean zehar, arrainen heriotza eragin duten kutsaguneei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nafarroan, 1998 urtean zehar, arrainen heriotza eragin duten kutsaguneei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du; hain zuzen ere, Nafarroan, 1998 urtean zehar, arrainen heriotza eragin duten kutsaguneei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zenbait jarduketa egin ditu Ingurugiro Departamentuak, urte hasieratik hona, ibaietatik arrain hilak kentzeko? Jakin nahi da noiz gertatu zen, zein ibaitan, eta zenbat arrain hilak bakoitzean.

Ibaiaetatik arrain hilak kentzeko egin behar izan diren jarduketak hurrengoak dira:

1998AN ZEHAR NAFARRAOKO IBAIEN GERTATURIKOEN ZERRENDA				
EGUNA	LEKUA	IBAIA	GERTATURIKOA	HILDAKO ARRAINAK
98-04-27	Iruña	Arga	Arrain hilak, Arga ibaian (Belosoko zubia). Arrazoia: isurkin toxikoa	15.000
98-05-24	Mugiro	Larraun	Larraun ibaira eginiko isurketa. Efluenta: Mugiroko ur araztegia.	8
98-05-27	Egillor	Arakil	Karramarro eta arrain hilak, Arakil ibaian.	27
98-06-26	Egues	Egues	Gasolio isurkina.	82
98-06-29	Iruña	Arga	Arrain hilak, Arga ibaian (San Pedroko zubi zaharrean).	5.000
98-07-10	Antzin	Ega	Ega ibaian eginiko ezkutuko arrantzaren ondorio, seguruenik.	500
98-08-05	San Adrian	Ega	Arrain hilak, Ega ibaitik deribatutako ureztatzeko kanalean. Arrazoi ezezaguna.	5.000
98-08-08	Arbizu	Leziza	Errekara karga organiko handiko hondakin-uraren isurketa, Bekoetxe ENS enpresak egina.	71

98-08-17	Antzin	Ega	Ega ibaira eginiko kloro isurketa, udal igerilekuan aberia izateagatik.	300
98-08-24	Uharte	Arga	Ega ibaira eginiko kloro isurketa, udal igerilekuan aberia izateagatik.	3.000
98-08-24	Lantz	Ultzama	Ultzama ibaira karga organiko handiko hondakin-uraren isurketa, Car-Belate enpresak egina.	38.000
98-09-05	Gares	Arga	Arrain hilak, Robo ibaian, Arga ibaia hazi eta lohiekin urak uhertzeagatik.	43.000
98-09-08	Bera	Santelerreka	Errekara eginiko isurketa. Efluenta: Ibardineko ur araztegia.	20
98-09-09	Faltzes	Arga	Arrain hilak, Arga ibaian, Mugako ibarbasoan (EN-22).	600
98-09-11	Iruña	Arga	Arga ibaira eginiko isurketa, Antsoaingo igerilekuan okerra izateagatik.	12.700
98-09-25	Galar	Elortz	Elortz ibaian, arrainak hiltzea; euria zela-eta, ibaia hazteagatik.	1.000

2. Zer eragin izan dute gertakari horiek gure ibaietan? Zein kasutan jo daiteke larritzat gertakari horien eragina ingurugiroan? Zein jarduketa egin dira gertakari horietako bakoitzak eragindako kalteak konpontzeko?

3. Zeintzuk eragin dituzte aipatutako gertakariak? Zenbat salaketa egin dira, 1998 urtean zehar, horrelako jarduketei buruzkoak?

Faunan heriotzeak gertatu dira, eta horixe izan da kalterik garrantzitsuena; betetzen zuten habitata leheneratu da, eta ale berriek kolonizatu dituzte kaltetutako eremuak.

Hauxek izan dira izandako kalteak konpontzeko eginiko jarduketak: hildako arrainak kentzea eta kalteak sortu dituzten jardueri –jakiterik izan denean– neurri zuzentzaileak eskatzea.

Honekin batera doazkizu hondakin-uren isurketak direla-eta gertaturikoak; zer larritasun izan duten eta eginiko jarduketak ere zehaztu dira.

4. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelako gertakari berriz ere gerta ez dadin?

Gobernuak, ohiz egiten dituen kontrol eta behaketa jarduketaz gain, Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean aurkeztu nuen progaman deskribatzen direnak ere egiten ditu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

(Oharra: Aipatu agiriak Foru Parlamentarioen esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak industri jarduerak ingurugiroan duen eragina aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztu diren eskaerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du industri jarduerak ingurugiroaren gainean duen eragina dela-eta, aurrea hartu, zuzendu eta kontrolatzeko dirulaguntzetarako 1998an aurkeztutako eskabideei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna.

1. Zeintzuk izan dira 1. artikuluko 2. puntuan agertzen diren mota bakoitzerako dirulaguntza eskaerak? Zera nahi da: dirulaguntza eskatu zen eguna, hori eskatu zuen enpresa edo erakunde onuradunaren izena, jarduketaren laburpena, eta jarduketa egiten den herriaren izena.

2. 1998ko ekitaldirako, gehitu al da aurreko urteetan hartutako aurrekontu konpromisorik? Baiezkoan, zera nahi da: espedienteak, zenbatekoak eta urte bakoitzerako konpromisoa.

Eranskinean agertzen den taulak dakar eskatutako informazioa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo.

(Oharra: Aipatu laukia Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Abeltzaintza ustiategien ingurugiro eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak abeltzaintza ustiategien ingurugiro eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du abeltzaintza ustiategien ingurugiro eragina aurreikusi, gutxitu eta zuzentzeko inbertsioetarako 1997ko dirulaguntzei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer arautegi (foru lege, dekretu eta aginduak) zaio aplikagarri kontusail horren erabilerari? Zer aurrekontu lerrok finantziatu zituen 184/1997 Foru Dekretuak emandako dirulaguntzak?

Ondokoa da, 184/1997 Foru Dekretuaz gain, aplikatu beharreko legeria: Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko

arabide orokorrari buruzko ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legea.

Ondoko aurrekontu-lerroak finantzatu zituen dirulaguntza horiek: 11260-8 lerroa, granjetako hondakinak minimizatu eta tratatzeko dirulaguntzak.

2. Handitu al zen, foru agindu edo ebazpenen bidez, aurreko galderan aipatutako aurrekontu-kontsignazioa 1997ko ekitaldian erabili den diru kopururaino? Baiezkoan, zein izan dira hasieran aurrekontuan agertzen zen kopurua eta azkenik erabili dena?

Ez zen handitu aurrekontu-kontsignazioa. Hasierako zenbatekoa 50 milioi pezetakoa, eta azkenean erabili zena 9.291.850 pezetakoa. 40.708.150 pezeta industri hondakinak ahal den guztian murriztu eta tratatzeko dirulaguntzen lerroa transferitu ziren.

3. Zeintzuk izan dira 1. artikuluko 2. puntuan agertzen diren mota bakoitzerako emaniko dirulaguntzak? Zera nahi da: dirulaguntza eskatu zen eguna, hori eskatu zuen enpresa edo erakunde onuradunaren izena, jarduketaren laburpena, eta jarduketa egiten den herriaren izena.

Ondotik doaz jaso diren eskaeren arabera emandako dirulaguntzak. Beste hiruk amore eman zuten tramitazioak iraun bitartean.

ESKATZAILEA	HERRIA	MOTA	ZENBATEKOA	Proiektuaren laburpena	Esk. eguna	Kontz. eguna
Andoni Irigoyen	Aniz	A	1153591	Simaurtegia eraikitzea	97/5/7	97/5/23
Martin Irurita	Lantz	A	764900	Minda biltegia	97/1/14	97/5/5
Granjas del Ebro	Viana	A	6709610	Simaurra tratatzeko nabea	97/6/2	97/10/22
EHNE	Iruña	F	663750	Argibide liburuska editatzea	97/10/17	97/8/28
			9291850			

4. 7. b artikuluan ezarritakoaren arabera, jakinarazi al zaio Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari gertakariren bat, dirulaguntza jaso zuen proiektua modu aipagarrian aldatu duena? Baiezkoan, onartu al ditu espresuki Foru Komunitateko Adminstrazioak aipatutako aldaketak? Zehaztu espedientea eta eginiko aldaketak.

Diruz lagundutako proiektuen edukinetan ez da Adminstrazioari konpromiso erantsirik ekarri dion aldaketa nabarmenik gertatu.

5. 1997ko ekitaldian, hartu al da aurrekontu konpromisorik hurrengo urteetarako? Baiezkoan, zera nahi da: espedienteak, zenbatekoak eta urte bakoitzerako konpromisoa.

Granjas del Ebrok 1997rako proiektaturiko inbertsioa erabat bukatu gabe dagoenez, 4.512.054 pezeta gehitu ziren gerakinen kontuan, egindako inbertsioari dagokion dirulaguntzaren baliokidea hain zuzen ere. Emandako dirulaguntzaren gainerako zenbatekoa, 2.197.556 pezeta, 1998ko ekitaldirako konprometitu da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Hondatutako eremuak leheneratu eta ingurugiro eraginak zuzentzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak hondatutako eremuak leheneratu eta ingurugiro eraginak zuzentzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du endekaturiko eremuak leheneratu eta ingurugiro eraginak zuzentzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Kontusail horren erabilera arautzerakoan aplikagarri zaizkion lege, dekretu eta foru aginduen zerrenda.

Ez dago berariaz kontusail honi aplikatzekoak diren foru lege, dekretu eta/edo agindurik.

2.- 1997ko ekitaldian, kontusail horrek izan duen zenbatekoa osatu arte egin diren kreditu

handitzeak bai foru agindu eta ebazpenen bidez, bai aurrekontutik kanpoko ekarpen edo finantziazioaren bidez (beste instituzio batzuen laguntzak...).

Kontusailak ez du kreditu handitzerik izan

3.- 1997ko ekitaldian erabilgarria izan den zenbateko osoaren desglosea, kreditu erabilgarria edo 1996ko ekitaldian konprometitua izateagatik.

Hona hemen 1997an zehar kontusail horren kargura eginiko jardueren zerrenda:

Jarduketak	Esleitutako kreditua	Aitortutako betebeharra
Endekaturiko eremu zenbait	1.909.566	1.909.566
Berriain	378.076	378.076
Ilurdutz	399.086	399.086
Zabortegi zenbait	11.866.800	4.944.500
1998an betetzeko		6.922.300

4.- Kontusail horren kargura eginiko jardueren zerrenda. Zera eskatzen da: proiektuak, jarduketak, etab., eta horiei buruzko ondoko xehetasunak: hasiera eguna, jarduketa egin duen edo egiten ari den enpresa, entitate edo instituzioa, jarduketaren azalpen laburra, bukaera eguna, aurrekontu kostua eta aipatutako jarduketak egindiren herriak.

Kontusail horren kargura eginiko jarduerak hurrengo hauek izan dira:

* Endekaturiko eremuak: jarduketa txikiak, zenbait lekutan.

* Beriain: Beriain-Getzeko hondakindegia lehenertzeko aurreiazko lanak; ANECOP ari da lan horretan, Nafarroako Gobernuarekin izenpetutako lankidetzak hitzarmen baten ondorioz.

* Ilurdotz: Harrobi bat lehenertzeko lanak, non zenbait industri isurkin zeuden. Lanak Ream enpresak egin zituen 1997ko abuztuan.

* Zabortegiak: Hamabi isurketa puntu ixtea, Nafarroako hainbat lekutan: Arreko Trinitatean, Belateko bide zaharrean (zazpi puntu), Amaiurren, Berroetan, Gartzainen. Gestión Ambiental

Viveros y Repoblaciones SA enpresa publikoak egin zituen lanak, 1997ko bigarren sei hilabeteetan.

5.- 1997 eta 1998rako hartutako gastu konpromisoa, eta ekitaldi honetan izapidatutako espedienteak.

1997an izapidatutako espedienteak kontuan hartuta, ez da 1998rako gastu konpromisorik hartu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 2an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Esnearen eta esnekien Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzakeen eraginei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak esnearen eta esnekien Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren aldaketak Nafarroan izan ditzakeen eraginei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du esnearen eta esnekien Merkatuaren Antolamendu Komunaren aldaketak Nafarroan izan ditzakeen eraginei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1998ko martxoaren 18an argitaratu zen “Esnearen eta esnekien sektorean, merkatuen antolamendu komuna ezartzen duen erregelamenduen proiektua”.

Ondoren, egindako galderak erantzunen ditut, ordenari eutsiz:

1. Hasierako agiriak (Agenda 2000) 2006. urtera arte kuoten sistema mantentzearen alde egin zuen. Erregelamenduaren zirriborroak irizpide horri eutsi dio, eta EBren kuota % 2 igotzea proposatzen du. Kuotaren gorakada horren % 4,98 Espainiarentzat da (batez ere, nekazari gazte eta mendialdeko eskualdeentzat), eta Nafarroak izanen du dagokiona; ez da nahikoa, baina onuragarria da Foru Komunitateko abeltzaintzat.

2. Eskuhartze prezioak % 10 jaitea defendatzen zen Agenda 2000n. Erregelamenduak jaitziera handitu eta % 15era pasa du, 4 urteko epean. Dena dela, gutxi gorabeherako prezioak zehazten ditu, era progresiboan portzentaia txikiagoan jaitzen direnak (% 13,3 lau urtetan).

Beste irizpide aldaketa batzuk ere agertu dira, hala nola, bazka-artoaren dirulaguntzak mantentzea, eta, hasieratik, 215 ECU/behi dirulaguntza ez finkatzea, sistema progresibo batez ordezkatzuz.

Beraz, Erregelamenduaren zirriborroan islatutako irizpide aldaketa kaltegarritzat jo daiteke.

3. Esnetarako behiek laguntzarik jasotzen ez duteneko egungo egoera kontuan hartuz, belarki

laboreen eta haragitarako behien MAK berrien proposamenak zein esnearen eta esnekien Merkatuaren Antolamendu Komunak, oro har, Nafarroan esnea ekoizten duen azpisektorearentzat emaitza ekonomiko ona ekarriko du.

4. Esne-behien kasuan, Erregelamendu proiektuak ezarri du Estatuko zenbatekoen kontura laguntza osagarria jasotzeko aukera, lurrari (bazka-labore eta larreei) lotutako buruen arabera, edo bestela, larre iraunkorren azalaren arabera. Kudeaketa eraginkorragoa izan dadin, onena litzateke Espainiak buruen araberako sistema aukeratzea.

5. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak deitutako bilkurarik ez da izan, horren inguruan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 6an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Nafarroako Artxibo Nagusiko dokumentazio historikoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak Nafarroako Artxibo Nagusiko dokumentazio historikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21eko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak galdera egin du Nafarroako Artxibo Nagusiko dokumentazio historikoari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroaren historia hurbilari buruzko dokumentazioa Lehendakaritza eta Barne Departamentuaren ardura da. Orain dela gutxi, dokumentazio hori euskarri informatikoan gordetzeko agindu du Gobernuak. Nafarroako Artxibo Nagusian Nafarroako antzinako erresumaren 1841 bitarteko dokumentazioa dago bilduta. Artxibo berria egitean erantsiko zaio Foru Diputazioaren 1984 bitartekoa.

Berez sortzen duen dokumentazioa artxibatzeko duen noski Gobernuak, hala euskarri modernoetan nola tradizionalak.

2.- Laburpen zein bilduma diplomatikoak eta historikoak hainbat euskarritan biltzea kontu

bibliografikoa da artxibistikoa bainoago; hots, artxiboan material hori gorde ahal izanen da, baina betiere liburutegiko zati gisa, eta jakina, Liburutegi Nagusian gordeko da, huraxe baita berez Nafarroako Liburutegi Nazionala.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 7an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui Ros

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, Parlamentuan sarrera erregistroko 2.565 zenbakia izaki, 70. NPAOn argitaratu zen galderako B eta C atalei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

Gaur egungo kontzepzioaren arabera liburutegia kontserbazio- eta hedatze-gune den aldetik, liburuak ez diren dokumentazio-materialak bildu ohi dira bertan, hala nola bideo zintak, audio zintak eta diskoak, disketeak, CD-ROMak, zinema-filmeak eta abar. Nafarroako Liburutegi Nagusian, horrenbestez, halako materialak gorde izan dira informazio-euskarri horiek merkatuan azaldu direnetik.

Zure galderako A atala dela eta, NLNarentzat lehenetasuna du Nafarroarekin zerikusia duten dokumentu bibliografikoak erostea, euskarri fisikoa zeinahi ere den. Horrela, haren bilduman daude bideoak, diskoak, CD-ROMak, disketeak,

mapak, afixak, liburuxkak zein Nafarroari buruzko bestelako dokumentuak, bai Lege Gordailutik datozenak bai beste bideren batetik eskuratutakoak. Dena den, gogorazi egin behar da liburutegien zeregina argitaraturiko materialak eta zabal-kunde publikorakoak biltzea dela, eta artxiboen zeregina, aldiz, entitateek euren jardueran sortutako barne dokumentazioa kontserbatzea.

B atalari buruz, berriz, NLNak sistematikoki jasotzen ditu Lege Gordailuaren bitartez Nafarroan eginiko materialak eta erabiltzailearen esku uzten ditu bere informatizazio planak aurrera egin ahala. Kultur asmoko entitateei baizik ez zaizkie uzten oraindik ikus-entzunezkoak, baina NLNaren asmoa da erabiltzaile norbanakoei ere utzi ahal izatea gutxi barru. Bestalde, badago NLNaren plan bat Nafarroako prentsako bildumak digitalizatzeko, jatorrizko dokumentuak babestearren eta

bilduma horiek CD-ROM bidez kontsultatu ahal izatea erraztearren.

Galderako C atalaz den bezainbatean, harremanetan gaude Radio Televisión Españolarekin, Nafarroari buruz telebista-kate horrek dituen ikus-entzunezko dokumentuen kopiak, bai eta La Voz de Navarra desagertuaren entzunezko grabazioenak ere, lortzearren. Material horiek gorde ahal izateko behar den azpiegitura zein espazio ezak geldiarazi egin du oraingoz fondo horiek eskuratztea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 10ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Desagertu berria den LH1etik heldu diren ikasleentzako aurreikusi diren alternatibei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Foru Parlamentario jaunak desagertu berria den LH1etik heldu diren ikasleentzako aurreikusi diren alternatibei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21ko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du desagertu berria den LH1etik heldu diren ikasleentzako aurreikusi diren alternatibei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

LH1eko ikasketak gainditzea lortu ez zutenek LOGSEk ezarritako ikasketetan sartu behar zuten; hain zuzen ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. edo 4. mailan (gainditu gabeko ikasgaien arabera). Ikasle horiek aukera izan zuten bigarren bide bat erabiltzeko: eskolatu gabekoentzako LH1 titulua -kasuan kasuko espezialitatea- lortzeko probak egiteko prestakuntza ikastaroak egiteko aukera izan zuten.

Ikasle gehienek erabili zuten aukera berezi hori eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak

diseinatu eta eraman zuen aurrera, ikastetxeetan ari diren irakasleek lagunduta. Helburua zen ikasketak horiek duintasunez irautsi zitezela eta ez zedila ikasle gehiegi gera bere bokazioa alde batera utzita (konparazio baterako, mekanika ikasketak berezitu batzuk utzi, eta DBH bezalako irakaskuntza muintzatu batean sartzeak bokazio-arekiko haustura dezentea dakar).

Ikastaro hori 350 ikasle egin dute, eta LH1 titulua % 85ek baino gehiagok lortu du; beraz, antolaketa eta ikasketak arloko neurri berezi hori arrakastatsutat jo dezakegu, eta uste berekoak dira irtenbide horretan lanean aritu diren ikastetxeak.

2.- Ekainean, jada, arazo horri aurre egin genion, eta zenbait heziketa ziklo bikoiztu egin genituen. Beste sei talde eratu ziren.

Irailean, zenbait ausazko faktore argitu ondoren, -irailean eginiko proben emaitzak, aurreinskripzio ugariak, benetako matrikulak eta besterik-beste bi talde eratu ziren.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Buñuelgo “Santa Ana” ikastetxe publikoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Buñuelgo “Santa Ana” ikastetxe publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21ko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak) idatziz erantzuteko galdera egin du Buñuelgo “Santa Ana” ikastetxe publikoari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

Ikastetxe horietako talde banaketa foru dekretuz dago arautua; hain zuzen ere, ondoko foru dekretuko 10. artikuluan: 225/1998 Foru Dekretua, uztailearen 6koa, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapenerako Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia erregulatzen dituena.

Taldeen banaketa egiterakoan, zuzendariak kontuan izan behar duen lehen irizpidea hau da: irakasle bakar bat talde berarekin mantentzea zikloa osatu bitartean.

2.- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren 24.2 artikulua hein batean garatzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomo-

en zerbitzuko langileen lanbide prestakuntza eta hobekuntza errazten dituen apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuak hala dio 3.1 artikuluan: “Foru Dekretu honek aipatzen duen zerbitzu eginkizunetako egoerak gehienez ere urtebeteko iraupena izanen du, urtero luzatu ahalko delarik beste urtebeterako, gehienez ere sei urtez”.

Zentro honetako behinbetiko irakasle Miguel Ángel Sayasek zerbitzu berezietan eskatu eta lortu du lanpostua, eta horrek asko zailtzen du txosten honen lehen atalean adierazten den legeria aplikatzea. Hala ere, Miguel Angel Sayas jaunak erabat zilegi du aukera hori egitea.

3.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak - Giza Baliabideen Zerbitzuak, hain zuzen- arin konpondu du zerbitzu bereziekin sortutako daten gorabehera, eta, hurrengo ikasturterako, izendapen edo kontrataziorako egunei buruzko neurriak hartuko ditu.

4.-Ikuskapenerako Zerbitzuak ere ahaleginak egin ditu taldeen banaketaren arazoa konpontzeko. Oraingo ikasturtean, 98-99 ikasturtean, konponbiderik gabeko arazoa zen, ikasle talde hori lehen hezkuntzako 4. mailan baitzegoen; gauzak horrela, konpromisoa hartu zen maisu bera izanen zela talde horretako tutore, lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailan dauden bitartean.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 7an

Hezkuntza eta Kultura Departamentua: Jesús Javier Marcotegui Ros

Bosques Naturales, SA enpresarekin izenpetutako hitzarmenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak Bosques Naturales, SA enpresarekin izenpetutako hitzarmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 29ko 73. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Bosques Naturales, SA enpresarekin izenpetutako hitzarmenari buruz Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Ba al da Nafarroako Gobernuaren eta Bosques Naturales, SA enpresaren arteko hitzarmenik?

Bai, bada lankidetzak akordio bat Inguru Zuzendaritza Nagusia eta Bosques Naturales, SAren artean.

2. Zeintzuk dira Nafarroako Gobernuaren eta Bosques Naturales, SA enpresaren arteko hitzarmenaren zehaztasunak eta baldintzak?

Akordio hori lankidetzak zientifiko teknikoari buruzkoa da. Bosques Naturales, SAk, lehen

fasean, 3.500 milioi inbertitzea aurreikusi du; hain zuzen ere, enpresa horren asmoa da punta-puntakoak diren laborantza intentsiboko teknika agromikoak erabiliz zuhaitzak landatu homogeneoak diren lurretan.

Nafarroako Gobernuak, Gestión Ambiental-Viveros y Repoblaciones de Navarra, SA sozietate publikoaren bidez, basogintzaren kontrola egiten du.

3. Nafarroako Gobernuaren iritzieren arabera, zer enpresa-fidagarritasun du Bosques Naturales, SAk?

Nafarroako Gobernuak ez du Bosques Naturales, SA enpresa fidagarria ez den zantzurik.

4. Zer eginkizun eman dio Nafarroako Gobernuak Viveros y Repoblaciones enpresari? Ez al da Bosques Naturales, SA enpresari agindutako lanak egiteko gauza? Gobernuak ez al du uste zereginak bikoiztea denik?

Nafarroako Gobernuak Gestión Ambiental-Viveros y Repoblaciones de Navarra, SA enpresa publikoari eman dizkion eginkizunak dira basogintzaren kalitatearen kontrolari dagozkionak. Nafarroako Gobernuak ez dio lanik eskatu Bosques Naturales, SAri; ez dira bikoiztu, beraz, zereginak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 6an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza: Yolanda Barcina Angulo

Beran, Ibardin eta Zia erreketan arrainak hiltzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Beran, Ibardin eta Zia erreketan arrainak hiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21ko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ibardin eta Zia erreketan arrainak hiltzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako kutsagunearen berri?

Nafarroako Gobernuak irailaren 8an izan zuen aipatu gertakariaren berri, SOS Nafarroan jasotako dei baten bidez. Santelerrekara joan eta Berako Arrantzaleen Elkarteko kide batzuek jakinarazi ziguten 20 amuarrain -bi heldu eta gainontzekoak arrainkume- hartu eta lurperatu egin zituztela. Ikusi ahal izan zuten, erreka ukiturik zegoen araztegiaren irteeratik hasi eta Zia errekarerekin bat egiten dueneraino.

2. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu, eta Etxebizitza Departamentuak arrainen heriotzaren zergatia? Isuriak izan al dira edo beste zerbait? Zein lekutan izan zen zehazki kutsagunea? Zer ikerketa egin ditu Nafarroako Gobernuak kutsaguneari buruz?

Arrainen heriotzaren zergaitia egun hartako euria izan zen, erreka jalkin organikoak errestan eraman baitzituen, eta horrek anoxia-egoera eragin zuen erreka-zati batean; han hil ziren, hain

zuzen ere, gero errekan behera joan ziren arrainak.

Ibardin gainean bada auzoberri bat, batez ere merkataritza zein ostalaritza jarduerak dituen. Bada, bertako hondakin-urak tratatzen dituen araztegia izan da jalkin horien sorlekua. Araztegiak, auzoberriarekin batera eraiki baitzuten, behar ez bezala jardun zuen 1992an konpondu zuten arte; orduan jarri zuten falta zuen tratamendu biologiko gehigarria, eta halaxe hobetu zuten hondakinen kalitatea. Halarik ere, araztegiak urak jaulkitzen dituen erreka txikia denez gero, hondakinak errekarerekin ibilguan pausatzen dira, eta, euria egiten duenetan, kiratsa sortu eta hondakinak eramaten ditu errekan behera, uraren kalitatea narrituz, nahiz eta ondorioak ez diren orain arte behin ere larriak izan.

3. Ondorio larriak eragin dituela uste al du Nafarroako Gobernuak? Zenbat arraini eragin zion kutsaguneari? Zein da, orain, ibaiaren egoera?

Aipatu bezala, ondorioak ez dira larriak izan: 20 amuarrain hil dira eta errekarerekin egoera egonkorra da berriro ere.

4. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak berriz ere ez gertatzeko?

Antzemandako eskasia egoeraren aurrean, NILSAk 1997an bertan erabaki zuen Nafarroako ibaien saneamendurako 1998ko planeko inbertsioetan sartzea araztegia hobetzea.

Enpresa publiko horrek hemendik gutxira ekimen dio jarduketa hori, hots, isurkinak daraman materia eta hortaz, errekarerekin ibilguan hura pausatzea minimizatzeko dekantagailu-digestorea eraikitzea, lizitatzeari. 1999ko lehendabiziko asteetan martxan egonen bide da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Robo eta Arga ibaietan, Gares aldean, izan den arrain hiltzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Robo eta Arga ibaietan, Gares aldean, izan den arrain hiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21ko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Robo eta Arga ibaietan, Gares aldean, izan den arrain hiltzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako kutsagunearen berri?

Irailaren 6an abisua jaso zen, hildako arrainak zeudela Robo ibaian, Arga ibaiarekin bat egiten duenetik gertu, eta haietako asko ari zirela kontzentratzen leku hartan, Arga ibaitik etorrira.

Bertara joan eta egoera hori zela egiaztatu zen; azken ibai horren kalitatea oso eskasa zen: aparra eta ustel usaina zeuden. Ibaian zegoen arrain dentsitate altuak (200 metroko ibilguan 700.000 inguru) heriotza gehiago ekar zitzakeela ondorioztatu zen.

Oxigenoa emateko unitate bat joan zen leku hartara, hilaren 7an, eta behar besteko mailei eutsi zien, harik eta 8an Arga ibaiko baldintzak hobetu, arrainak itzultzen hasi eta, halatan, aipatutako ekipoa erretiratu arte.

2. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu, eta Etxebizitza Departamentuak arrainen heriotzaren zergatia? Isuriak izan al dira edo beste zerbait? Zein lekutan izan zen zehazki kutsagunea? Zer ikerketa egin ditu Nafarroako Gobernuak kutsaguneari buruz?

Egun eskuartean duen informazioa kontuan izanik, Ingurugiro Departamentuak uste du zantzu guztiek erakusten dutela gertakari hauek zuzenki lotuta daudela Arga ibaiaren egoera aldatzearekin; izan ere, emaria handitu egin da, batez ere Iruñerriko Mankomunitateak Eugiko urtegia husteagatik eta (indar gutxiagoko arazoia) hilaren lauko euriarengatik.

3. Ondorio larriak eragin direla uste al du Nafarroako Gobernuak? Zein da, orain, ibaiaren egoera?

Jaso diren arrain hilak 43.000 inguru dira, eta, beraz, gertakari larria da. Dena dela, ibaiaren baldintzak egun gutxitan bihurtu ziren aurreko egoerara, baita arrain asko etorri ere; arrain horiek oxigeno gehiago sartu zelako salbatu ziren.

4. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak berriz ere ez gertatzeko?

Aurrera begira, kontuan izan behar da Arga ibaiaren baldintzak asko aldatuko direla: 1999ko lehen asteetan Arazuriko araztegiko tratamendu biologikoa jarriko da martxan, eta horrek ibaiko uraren kalitatea hobetuko du eta hondoan lohiak pilatzea eragotziko. Egoera berria ikusirik, urtegia husteak dakartzan ondorioak zehaztu eta segimendu- eta jarduketa-plan bat diseinatuko da, Iruñerriko Mankomunitatearekin elkarlanean.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Ega ibaian, Andosillan, izan den kutsadurari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Ega ibaian, Andosillan, izan den kutsadurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21ko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ega ibaian, Andosillan, izan den kutsadurari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako kutsagunearen berri?

Ohiko lanak egiten ari zirela, Ingurugirozaintzako langileek egiaztatu zuten ezen Andosillako herritik beherako uretan, Industrias Grasas Marín S.A. dagoen tokitik San Adriango presaraino doan tartean, ibaiaren azalak erdialdean zein eskuin bazterrean koipe geruza bat zeramala, bikortsua eta zuriska.

2. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak horren zergatia? Isuriak izan al dira edo beste zerbait? Zein lekutan izan zen zehazki kutsagunea? Zer ikerketa egin ditu Nafarroako Gobernuak kutsaguneari buruz?

Enpresaren euri-uren irteeran identifikatu zuten aipatu langileek isurgunea. Leku horretan isurtzen duen kolektoreak koipe-depositu batzuk dauden toki zolatu bateko euri-urak biltzen ditu. Depositu horietatik zoladurara gertatutako ihesak eragin zuten antzemandako isurkina.

3. Ondorio larriak eragin dituela uste al du Nafarroako Gobernuak? Zein da, orain, ibaiaren egoera?

Departamentuko teknikarien ustez, ondorioak ez dira larriak izan; izan ere ukitutako alderdiak ibaiaren 300 metro soilik hartzen ditu eta, ikusi zenez, ez dio eragin arrain-faunari. Geroago egindako jarraipenean egiaztatu ahal izan denez, ibilguak normaltasuna berreskuratu du.

4. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak berriz ere ez gertatzeko?

Horrelakoak berriz ere ez gertatzeko, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ondoko neurri zuzentzaileak hartzeko eskatu dio titularrari:

– Koipea biltzeko deposituak dauden ontzietako hustubide guztiak itxi ditzala, ontziek modu eraginkorrean betetzearren euren zeregina: jausi edo ihes egindako koipea atxikitzea.

– Koipea biltzeko deposituak dauden patioko euri-urak oso-osorik biltzeko sistema eraginkor bat instalatzea, horrela, gaur ez bezala, ez baita berriro ibaira isuriko zamalanak egitean jausitako koipearekin kutsatutako ura.

– Hondakin-urei zein horiek tratatzeko instalazioari buruzko txosten tekniko bat egitea, eta Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuari aurkeztea. Txosten horretan ondokoak zehaztuko dira: tratatzen den hondakin-uren mota bakoitzaren gutxi gorabeherako emaria (patioetako euri-urak barne), instalazioaren funtzionamendu-erregimena, isuritako hondakin-urari egun ematen zaion erabilera (egoera zein den ere), isurketa horretarako aurreikusi den behin betiko irtenbidea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Nafarroako Gobernuak eta Bosques Naturales enpresak sinatutako lankidetza akordioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nafarroako Gobernuak eta Bosques Naturales enpresak sinatutako lankidetza akordioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21ko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak eta Bosques Naturales enpresak sinatutako lankidetza akordioari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Oihan Planaren zein alde eramanen ditu aurrera, zehazki, aipatutako akordioak? Aipatutako enpresak bete nahi dituen helburuentzat, zer inbertsio egingen dituzte bai enpresak, bai Nafarroako Gobernuak? Zer on egingen dio Nafarroako Foru Komunitateari aipatu den akordioak?

Bosque Naturales, S.A. enpresarekin sinatutako akordioa oihan planaren 12. helburuan kokatzen da ("Kalitatezko produkzio ahalmenaren gorakada; 122. ekintza: espezie bitxiak sustatzea"), enpresa horrek gerezio eta intxaurren do laboreak planteatzen baititu.

Bosque Naturales, S.A.k 3.500.000.000 pezeta inbertituko ditu hasiera batez. Nafarroako Gobernuak, aldiz, oihan-jabeendako dirulaguntzen urteroko deialdiaren arabera dagokion laguntza emanen dio enpresari.

3.500.000.000 pezetako inbertsio batek sortutakoak izanen dira Foru Komunitateak aterako dituen irabaziak (BEZa, lanpostuak, teknologia...)

2.- Zein izan da akordioa sinatu aurretiko administrazio bidea? Izan al da elkarrizketarik aurreko enpresa horren antzeko beste enpresa, entitate edo erakunderekin? Zeintzukin? Zeintzuk izan dira arrazoiak Bosques Naturales enpresarekin kontratua sinatzeko? Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak akordio edo hitzarmenik sinatzeko beste enpresa, gobernuz kanpoko erakunde edo bestelakoren batekin, oihan planaren beste alde batzuk aurrera eramateko?

Lankidetza zientifiko-teknikorako akordioa baik ez denez, hau da, Nafarroako Gobernuak dirurik jarri behar ez duenez, ez da berariazko tramitaziorik egin behar izan.

Ez da elkarrizketarik izan beste enpresa batzuekin, ez baita ezagutzen Nafarroan ezarri nahi duen halako beste enpresarik.

Nafarroan sektorea garatzen lagunduko duten inbertsioak erakartzea bilatzen du batez ere lankidetza zientifiko-teknikorako akordioak.

Oihan planak bide ematen du enpresa eta GKEekin halako akordioak eta itunak sinatzeko, aipatu plana garatzeko egokiak baldin badira.

3.- Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak biltzar honetara, eztabaidatu eta onesteko igorritako oihan plan proiektuari akordio hori gehitzeko? Erregelamenduaren zein bide erabiliko du, izatekotan, akordio hori oihan planari gehitzeko?

Ez. Lankidetza zientifiko-teknikorako akordio bat baino ez da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 6an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Eugiko urtegia hustu eta gero antzeman den arrainen heriotzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Eugiko urtegia hustu eta gero antzeman den arrainen heriotzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 21ko 70. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nueva Izquierda-ko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak galdera egin du Eugiko urtegia hustu eta gero antzeman den arrainen heriotzari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Ea Departamentuak jarraitzen duen pentsatzen arrainen heriotza horiek Eugiko urtegia husteagatik gertatu direla, eta hala bada, zein neurri hartu dituen edo hartuko dituen horrelakorik berriz gerta ez dadin.

Egun eskuartean duen informazioa kontuan izanik, Ingurugiro Departamentuak uste du zantzu

guztiek erakusten dutela gertakari hauek zuzenki lotuta daudela Arga ibaiaren egoera aldatzearekin; izan ere, emaria handitu egin da, batez ere Iruñerriko Mankomunitateak Eugiko urtegia husteagatik eta (indar gutxiagoko arrazoia) hilaren lauko euriarengatik.

Aurrera begira, kontuan izan behar da Arga ibaiaren baldintzak asko aldatuko direla: 1999ko lehen asteetan Arazuriko araztegiko tratamendu biologikoa jarriko da martxan, eta horrek ibaiako uraren kalitatea hobetuko du eta hondoan lohiak pilatzea eragotziko. Egoera berria ikusirik, urtegia husteak dakartzan ondorioak zehaztu eta segimendu- eta jarduketa-plan bat diseinatuko da, Iruñerriko Mankomunitatearekin elkarlanean.

2. Zein izan diren Departamentuak atera dituen ondorioak (kasuz kasu), eta zein izan dira horrelakorik berriz ere ez gertatzeko Departamentuak hartu dituen neurriak (kasuz kasu, baita ere) Nafarroan urte honetan zehar izan diren kutsadura kasuei buruz, hain zuzen ere arrainen heriotza ekarri duten horiei buruz.

Aurten arrainak non eta noiz hil diren zehazten da ondoko zerrendan.

ARRAINEN HERIOTZAK 1998. URTEAN

EGUNA	TOKIA	GERTAKARIA	ONDORIOA				JARDUKETA	
			H	G	E/M	HE	S	NZ
98-04-27	Iruña	Argan (Belosoko zubia), isurketa toxikoagatik hildako arrainak	bai	bai		bai	bai	
98-05-24	Mugiro	isurketa Larraun ibaira, efluentea, Mugiroko uren arazketa	bai		bai		bai	
98-05-27	Egillor	arrain eta karramarro hilak Arakil ibaian	bai				bai	
98-06-26	Egues	Transportes Igoa y Patxi S.A, gasolio isurketa	bai	bai				
98-06-29	Iruña	arrain hilak Arga ibaian (San Pedro zubi zaharra)	bai			bai	bai	
98-07-10	Antzin	isileko arrantzaren zantzuak Ega ibaian	bai				bai	
98-08-05	San Adrian	Ega ibaitik datorren ureztatze-ubidean arrain hilak, ez dakigu zergatia	bai	bai			bai	
98-08-08	Arbizu	karga organiko handiko hondakin ura errekarara isuria, SAT Bekoetxe	bai		bai		bai	bai
98-08-17	Antzin	kloro isurketa Ega ibaira, udal igerilekuetan izandako matxuragatik	bai	bai			bai	
98-08-24	Uharte	kloro isurketa Arga ibaira, udal igerilekuetatik, ustekabeko bategatik	bai	bai		bai	bai	
98-08-24	Lantz	karga organiko handiko hondakin ura Ultzama ibaira isuria, Car-Belate	bai	bai	bai	bai	bai	bai
98-09-05	Gares	arrain hilak Robo ibaian, ur-goraldiagatik eta lohiak nahastu zirelako, Argan	bai	bai	bai	bai	bai	
98-09-08	Bera	isurketa errekarara, efluentea, uraren arazketa, Ibardin		bai		bai		bai
98-09-09	Falces	arrain hilak Arga ibaian, Soto de la Mugan (EN-22)		bai				bai
98-09-11	Iruña	kloro isurketa Arga ibaira, Antsoingo igerilekuetatik, ustekabeko bategatik	bai	bai		bai		bai
98-09-25	Galar	arrain hilak Elortz ibaian, euria egin eta izandako ur-goraldiagatik	bai	bai			bai	

ZEINUAK

ONDORIOA:

H: Heriotza, G: Garrantzitsua, E/M: Etengabe edo maiz, HE: Hedatua

JARDUKETA:

S: Segimendua, NZ: Neurri zuzentzaileen eskaera, ZE: Zehapen espedientearen proposamena

3. Ea Ingurugiro Departamentuak uste duen behar dituen bitartekoak edo bitarteko aski dituela gertaturikoari aurre egiteko, gure ibaietako tarte jakin batzuen kutsadura dela-eta, edo bitarteko gehiago behar dituela uste ote duen. Halakorik uste badu, zein bitarteko behar dituen.

Irailaren 30eko agerraldian Arga ibaiaren egoeraz mintzatu nintzen; han adierazi nuenaren arabera, Departamentu honek jarduketa programa bat osatu du ibaietako ekosistema hobetzeko, eta horren ondorioa gure ibaietako poluzio-egoera

zuzentzea izan beharko da (eranskinean dator programa hori).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 8an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

(Oharra: Aipatu programa Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

1998ko abuztuaren 23an, Arga ibaian arrain hilak agertzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak 1998ko abuztuaren 23an, Arga ibaian arrain hilak agertzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko irailaren 14ko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko urriaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1998ko abuztuaren 23an, Arga ibaian arrain hilak agertzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Hartutako ur laginen analisiak egin eta emaitzak jakinda, zein izan da arrainak hil dituen substantzia Arga ibaiaren aipatutako zatian? Produktua iraunkorra da edo diluitu eta kaltetutako eremuak leheneratuko direla segurua da?

Uharteko udal igerilekuetako hipoklorito-ihes batek hil ditu arrainak.

Sustantzia horrek uretako materia organikoa-ekin erreakzionatu eta handik denbora gutxi samarrean desagertzen da. Izan ere, ibaiaren kilometro bateko luzeran soilik hil ziren arrainak.

2. Produktuaren ezaugarrien arabera, zer izan da, industri hondakinen bat ala kaltetutako lekutik gertu dagoen beste instalazioren bateko beste hondakinen bat? Isurketa puntuala eta leku jakin batekoa izan al da?

Hipokloritoa igerilekuetako uraren tratamendu sanitarioan erabiltzen da.

Igerilekuetako ura tratatzeko erabiltzen den hipokloritoaren ihesa izan zen kausa. Hipokloritoa abuztuaren 23ko iluntzean isuri zen Arga ibaira.

Biltegitatze-depositutik igerilekuetako ur-araztegitiko lau deposituetako batera hipokloritoa darman hodiko giltza bat apurtzean gertatu zen isurketa, eta bertan sustantzia horretako 500 bat litro isuri ziren.

Depositu horrek gainezka egin, hipokloritoa zolarrira jausi eta ponpaketa-kutxeta batera heldu zen hustubide batean barrena dutxetako alderdia biltzen duen kolektorearen bidez.

3. Nafarroako Gobernuak kalte ekologikoa larria izan dela uste al du? Zein datutan oinarritu da aurreko galderari emandako erantzuna?

Ukitutako fauna-kopuruari erreparatuta, kalte ekologikoa larritzat jo daiteke, bai.

4. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak horrelako edo antzeko beste gertakaririk izan den Arga ibaian? Zeintzuk izan dira, zer eragin izan dituzte eta zerk eragin zituen?

Gertakari honen aurretik ere antzeko isurketa bat gertatu zen Iruñeko udal igerilekuetan. Orduko haren jatorria bainu-kanpainaren aurreko igerilekuen garbiketa eta sortutako hondakin-uren isurketa izan zen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo